

400 pezeta.
15 libera

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

29

topake

Haur
Eskoletako
irakasleak
gaia

Manuel Alvarez
elkarrizketa

Eskola Ekoauditoriak

Gehigarria

Europako irakasleen
lan baldintzak
Nazioartea

1998ko EKAINA

Argitaratzailea:

XANGORIN

Zirkuito Ibilbidea,
2. Pabilioia. 20.160
LASARTE-ORIA
GIPUZKOA.

Tel: 943/ 37.15.45
Fax: 943/ 36.10.48

Lege Gordailua: SS-1001/95
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:
Jose Mari Auzmendi

Erredakzio burua:
Ainhoa Azpiroz

Erredakzio batzordea:
Itziar Barriola, Mikel Estonba,
Arantxa Goiburu,
Mari Karmen Irastorza,
Kristina Mardaraz,
Josi Oiarbide, Juanjo Otaño,
Fito Rodriguez, Maite Saenz,
Xabier Sarasua eta
Arantxa Urbe.

Aholkulariak:
Imanol Agirre, Begoña Bilbao,
Mariam Bilbatua, Xabier Isasi,
Irene Lopez-Goñi,
Izaskun Madariaga,
Kepa Perez Urraza,
Lore Erriondo,
Lontxo Oihartzabal eta
Pruden Sudupe.

Diseinua:
Zart

Maketazioa, fotomekanika:
Xangorin.

Inprimategia:
ANtza S.A.L.

Azaleko argazkia:
Ikor Kotx

Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailak Onetsia
1.998/VI/2

Kopurua: 3.500 ale

5 editoriala

6 kronika
8 gaia

HAUR ESKOLA TXIKIETAKO IRAKASLEEN
EZAGUERA PRAKTIKOA

14 elkarrizketa
Manuel Alvarez
Ebaluazioaz

19 Gehigarria
Eskola Ekoauditoreak
Ingurugiroarenganako kezka baino gehiago

26 hik hasi. Elkarrekin Topaketak

27 Berriak

32 Ekarpena
Herri Eskolaren Mugimendu Kooperatiboaren 26. Kongresua

35 Nazioartea
Europako irakasleen ordutegiak eta ordainsariak

37 Nazioartea
Argentinako irakasleak urtebetez barau greban

39 Praktikatzen
Arte Hezkuntzako baliabideak Interneten

COUNCIL OF EUROPE-
CONSEIL DE L'EUROPE



Strasbourg
1996ko maiatzaren 22

Aldizkari honek "aipamen berezia" jaso du Europako Kontseiluaren "lurraldeen arteko lankidetzarako sustapena" programaren barruan.

hik hasi ez ditu bere gain hartzen laguntzaileek plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



fundazioa
fundación

e d i t o

.....

r i a l a

P

ena eta amorruz jaso dugu berria. Xirrixa eta Kometa aldizkariak ez dute gehiago argirik ikusiko. Iparraldeko lagunen ahaleginak ez du segidarik izango.

Ez, gure haur eta gazteak ez dira aldizkarietaz aspertu. Iparraldeko lagunei ez zaizkie ideiak agortu ezta lanerako gogo eta indarrak xahutu. Merkatua haur eta gazteei zuzenduriko euskal aldizkariz gainezka ote dago? Ezta hori ere, ez. Hor, denok ahulen dugun puntuan eman diete bete-betean. Laguntzarik gabe utzi dituzte eta noski, ezin denbora gehiagoz utsi.

Ez da erraza Xirrixa eta Kometa bezalako proposamen interesgarri eta txukunak plazaratzea: kalitatezko lanari ekin, haur eta gazteen interesari erantzun eta berez honelako lan batek inguruan sortzen dituen zailtasun guztiei aurre egiteaz gain, itomen ekonomikoa nozitzea. Eta honetaz guztiaz askotxo dakigu hik hasin ere. Pena eta amorruz jaso dugu berria. Nafarroako Sortzenen D ereduaren aldeko eskaerari gogor eta bortizki erantzun dio poliziak. Nafarroako lagunak egurtuak izan dira Iruñean euskaraz ikasteko duten eskubidea gauzatzea nahi dutelako.

Eta hala ere abentura gora-beheratsu bilakatu den euskara eta euskal kulturaren aldeko honetan jarduteko kemena eta ausardia badagoela berresten dute hainbat eta hain-

bat ekimenek. Egitasmoak berez atxikirik dakarren lan nekezari imajinatu ere ezin zitezkeen oztopoei aurre eman behar arren.

Ikastolen Elkarteak Iruñeko Planetariumean lau egunez aurkezturiko ebaluazioari buruzko lan mardul eta sakona da hauetako adibide bat eta Donostian hik hasik balorei buruz burutu zituen topaketak beste bat. Eta hauekin batera, nola ez, Euskal Hezkuntza Erkidegoan egunero batean eta bestean egin eta gauzatzen diren ahaleginak.

Herri batek belaunaldiz belaunaldi jaso-tako ondarrerik preziatuena iraunarazteko grinak eta bere nortasun eta izaera milurteko berriak eskatuko duen prestakuntzarekin uztartuko dituen eskola egitasmoa burutzea ez da txantxa. Gizartean sustraitua egongo den eskola nahi bada, gizartearen berezitasun eta beharrezan erantzungo diena, aldarrikatzen den erduei entzun eta jaramon egin beharra dago.

Inkesta zaleei proposatuko genieke ilunean arakatu eta ondorio zaharkitu eta hankamotzak aurkitzen tematu beharrean zabal diezaizkiotela begiak eta belarriak errealitateari. Txundituta geratuko dira aurkituko dutenarekin. Eta gure iritzi apalean ez dugu uste herri honi darion irauteko ilusioa eta duen potentziala gizaki elebidunaren beste gaitz bat denik.

Gure elkartasuna adierazi nahi diegu Xirrixa, Kometa, Sortzen eta eguneroko lanean modu batera zein bestera ito nahi zaituzten guztiei. Berrito ere bidelagun izan zaitzategun lanean jarraituko dugu beste besteok.

Euskal irakaskuntzaren ausardia eta tinkotasuna eredu



Euskarazko irakaskuntzaren bidea oztopatzen duten harriak ezagunak dira

k r o n



Batxilergoaren finantzaketa oraindik airean da Nafarroan

Maiatzaren 21ean Nafarroako Parlamentuan burutu zen plenoak ez zuen CDNren mozioa onartu. Mozio honetan LOGSEko batxilergo berriak eta Lanbide Heziketako heziketa ziklo berriak finantzatzeko modu bat proposatzen zen, baina UPN eta PSNk ez dute onartu. CDNk kontzertuen sistema planteatzen du batxilergo eta heziketa ziklo berriak finantzatzeko. Sistema honek benetako hezkuntza askatasuna bermatuko omen du.

Bestalde, UPN eta PSN ez daude ados sistema honekin, baina beraien artean ere desberdintasunak daude. UPN kontzertuen sistema defendatzen du, baina momentuz batxilergo-ko lehen kurtsorako, maila ertaineko heziketa zikloetarako eta garrantzia sozialeko programetarako. Sozialistak, berriz, batxilergoan beka sistema ezartzearen alde daude. Eta Lanbide Heziketari dagokionez, eskola pribatuekin kontzertuak egiteko aukera planteatzen dute.

Gauzak erabakitzeke dauden bitartean, ikasleak datorren ikasturterako aurrematrikulazioak egiten ari dira. Oraingoz datu zehatzik ezagutzen ez bada ere, Lanbide Heziketako heziketa ziklo berrietan uste baino ikasle gehiagok eman dute izena. Aurrematrikulazioak bikoiztu eta zenbait kasutan hirukoiztu egin dira. Guztira 20 plaza-ko 113 ziklo eskaintzen ziren sare publikoan eta pribatuan. Lanbide Heziketaren birmoldaketa Erreformatoren zutabetzat hartu da eta garrantzia eman zaio. Unibertsitatearen aurreko alternatiba moduan aurkezten da eta errealitate sozio-laboralarekin lotura estua duena bezala. Gizarteak ongi erantzun du orain arte eta horren froga da aurrematrikulazio hauen kopurua.

Euskarazko irakaskuntza publikoa eztabaidagai Nafarroan

Jakina denez, aurtengo aurrematrikulazio kanpaina Nafarroako Gobernuak ez du D ereduaren aldeko kanpainarik egin aurten, eta elkarte askotatik salatu da jokaera hau. Honen aurrean Javier Markotegi Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak zera argudiatu zuen: D ereduaren aldeko kanpaina ez dela desagertu, irakaskuntza publikoaren aldeko kanpainaren barruan sartu baizik. Horrekin batera, D ereduari tratamendu berezirik ez zaiola eman behar esan zuen.

Baina errealitatean ez da horrelakorik gertatzen. Nola ulertu bestela, G ereduko gela bat irekitzeko gutxienez lauzpabost ikasle behar izatea eta D ereduko bat irekitzeko 25 eskatzea? Honen ondorioz, guraso batzuek ezin dute beraien seme-alabek euskarazko irakaskuntza jasotzea bermatu.

Horrelako arazoak gainditzeko asmoz Nafarroako Herri Batasunak sei proposamen aurkeztu zituen Parlamentuan, baina UPN eta PSNk banan-banan errefusatu zituzten proposamen guztiak.

“Gizaki modernoak sustraituta egon behar du eta aldi berean kosmopolita izan”. (Robert LAFONT)

i k a

Frankismo garaiko andereñoen lana

Frankismo garaian ikastoletan lan egin zuten andereñoak isilpean lan egin beharrean aurkitu ziren, eta ondorioz, Gizarte Segurantzaren kotizatu gabe. Hori dela eta, orain eskaera bat egin diote Gasteizko Parlamentuari eta Lakuako Ogasun eta Herri Administrazio Sailari, aurretik Arartekoarengana zuzendu direlarik.

Izan ere, 65 urte bete eta jubilatzeko garaia iritsi zaien andereñoak kotizatu gabeko urte haietako dirurik gabe gelditzen dira. Gizarte Segurantzak 35 urteko kotizaziora iristeko falta den urte bakoitzeko %2a murrizten die. Andereño hauei, ostera, legezkoa iruditzen zaie jubilazio-pentsioa lanean aritu ziren urteei egokitzea. Hori dela eta, Gizarte Segurantzaren pensioarekiko alde Lakuako Gobernuak ordaintzea proposatu dute. Arartekoak egin dituen kalkuluen arabera 7.353.830 pezeta ordaindu beharoko lituzke.

Momentuz 23 andereño dira eskaera hau egin dutenak; 22 Gipuzkoakoak eta Bizkaiko bat. Dena dela, zerrendan, arazo hau duten andereñoak gehiago ere izan daitezke.



Urruñako harriak kolokan dira

Urruñako ikastolaren aldeko kanpainaren ondoren harri ugari lortu dira ikastola eraikitzeko, baina Daniel Poulou auzapezak denak bota ditu. 1997ko abenduan herriko kontseiluak ikastolaren eraikuntzaren aldeko bozka eman zuen, baina orain atzera egin du. Horretarako aitzakia Herritarrek talde abertzaleak Urruñako Udalaren aurka jarritako kereilak izan dira. Poulou auzapezari ez zaizkio batere gustatu Puttilenia izeneko etxebizitzaren proiektuaren aurkako kereila hauek. Bere ustetan etxebizitza berri horiek ez egiteak ondorio sozial eta ekonomikoak izango ditu, eta beraz, ikastolari laguntzeko dirurik ez


du oraingoz.

Gurasoak haserre daude Poulouk elkarrekin zerikusirik ez duten bi gai nahastu dituelako: Herritarrek taldearen kereilak eta Urruñako ikastolaren eraikuntza. Kereila horiek atzera botatzea baldintzatzen jarri du ikastolaren aldeko negoziaketak jarraitzeko.

Gauzak horrela, Urruñako ikastolaren aldeko elkarteko kideak gauzak birplanteatu beharrean aurkitzen dira. Izan ere, Herriko Etxeak agindutako lur eremurik gabe, oraingo proiektuak ez du baliorik. Gainera, aipatu proiektuarekin aurrera jarraitzeko, udalaren agiri batzuk behar dituzte, eta nahiz eta martxoan eskatu, oraindik ez dituzte eskuratu.

Egoera honen aurrean, ikastolako gurasoak protesta ekintza iraunkorra aurrera eramatea erabaki dute Poulouri 1997ko abenduko Herriko Etxeko akordioa bete dezan eskatzeko. Horretarako, gurasoak egunero informazioa eskaintzen daude Urruñako Herriko Etxeko sarreran, arratsaldeko 4.00etik 7.00etara astegunetan eta goizeko 10.00etik 12.00etara igande eta jai egunetan. Informazioa emateaz gain, ikastolaren aldeko sinadurak ere jasotzen dituzte Herriko Etxera bidaltzeko. Beraz, oraindik ez dago esperantza galtzeko motiborik, aurrera jarraitu beharra dago.

GAIA Haur Eskola txi irakasleen "ezaguera



Badira urte batzuk Haur Eskola Txikietako (0-3) profesionalak gure Donostiako Irakasle Eskolako panoraman agertu zirela. Erreformaren ondorioz profesional hauen formazioan ardura berriak hartzeko erronkari aurre egin behar izan genion. Kolektiboa, bere 'kultura profesionala', ez genuen batere ezagutzen gure Eskolan. Hortik etorri zen bere eguneroko lanaren azterketa deskribatzailer sakon baten premia.

kietako praktikoa”



Luis Mari Elizalde

Didaktika eta Eskola
Antolakuntza Saila (EHU)

Beasaingo eta Donostiako Haur Eskoletako bi irakas-taldeekin batera bere ezaguera praktikoari buruz ikasitako hartatik guztitik kontu bat kontari nator: haur taldearen aurrean presente daudela adierazteko irakasle hauek erakusten duten trebezia profesionala kontari hain zuzen ere.

Presente daudela erakutsi

Presente daudela erakusteko hezitzaileek egiten duten ahalegin etengabea da, nire ustez, Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko irakasleen 'patroi akademikoa' gehien eta ondoen definitzen duen ezaugarria.

Beren kokatzeko modua, beren ahalmen espresiboa, gorputzaren posibilitate guztiak -tonua, jarrera, mugimenduak-, ahotsa, begiratuak... erabiltzen dituzte, iharduerako talde eta norbako bakoitzaren aurrean beren presentzia eraginkorraren sentsazioa

modu jarraituan atxikitzen ahalegintzeko. Nire ustez oinarritzko bi arrazoi direla kausa egiten dute hori:

-Batetik, bezeroen profila dugu; adin horretako haurtxoek seguru daudela nabari behar dute gauzak aztertzeko, harremanak izateko, aurrea hartzeko, ikasteko, oreka batean hazteko... eta, eskolan, sentimendu horren gakoia hezitzailearen 'presentzia' da: bere jarrera abegitsua, harrera onekoa, irekia, aldi oro 'entzute aktibo' egoeran egotea, haur bakoitzak azaltzen dituen beharrak eta eskaerak egokiro erantzuteko nahikoa lasaitasun izatea da, besteak beste eta gure ikuspuntuaren arabera, lanpostu honetarako gaitasun profesional garrantzi-

“Hezitzaileak zentzuzko bigarren maila batean kokatzen dira, haurren ekintzaren laguntza eta euskarri gisa”

tsuenetakoa.

-Bestetik, iharduera-guneen ugartasun handia batera gertatzen da, eta horrek, aldi berean, erantzun-eskaera handia sortzen du hezitzaileen aldetik. Beren artea erabili beharrean aurkitzen dira hainbat planotan batera egoteko, aldi berean distantzia desberdinetara komunikatzeko, iharduera-guneetan eta -periferietan arretari eusteko moduan kokatzeko eta mugitzeko, eta abar.

Egiten dakitena eta egoteko duten modua

Irakasleek norbanakoen eta taldeen iharduera behatzen dutenean, eta interesa erakusten dutenean bere presentzia adierazten dute. Haurtxoen ekimena eta protagonismoa errespetatuz, segurtasuna eta elkarriketa... eskaintzeko. Hezitzaileak taldeari eta norbako bakoitzari helarazten dien sentsazioa da berak haurren segurtasuneko oinarritzko beharrei erantzuten diela, beren 'eskura dagoela', beraientzako prest, arretatsu... dagoela. Baina ihardueraren ekimena haurren eskuetan utziz; eta hezitzaileak zentzuzko bigarren maila batean kokatzen dira, haurren ekintzaren laguntza eta euskarri gisa.

"Hezitzaileak zoruan eserita jarraitzen du, lehentxeago lo hartzeko zailtasun handienak izan dituzten bi haurrak lastandu eta masajeak eman dizkien jarreraren, eta orain, halako 'garbiketa edo gainbegiratu' egiten du begiekin, gela osoan barrena"; "hezitzailea mahai inguruan puzzleekin lanean ari den haur-multzoaren ondo-



an kokatu da, ondoan eseri eta arretatsu dago. Tarteka lana ikusi eta baloratu egiten du..."; "handiek harraskan eskuak garbitzen dituzten bitartean, bera atzealdean kokatzen da 'plستي-plasta' abesten duen bitartean, eta argazki batzuk ateratzen dizkie"; "haur bat taldetik irten eta alde batetik bestera dabil gela nagusian barrena. Hezitzaileak eserita jarraitzen du, eta begiratuaren bidez segitzen dio".

Hezkuntza-elkarrekintzan haurrek azaltzen dituzten emozio, sentimendu, nahiak, beharrak... aipatzen ahalegintzen dira; horrela, interesa erakutsi eta behaketaz gain, eta sistematikoki erakusten ari diren agerpenaren ondorio logiko gisa, hezitzaileak erantzun beharrean aurkitzen dira, eskaerak kontuan hartuz, haurren emaitzak baloratuz... Haurtxoen sentimenduen eta beharren oihartzun-kaxaren antzeko zerbait bilakatzen direla iruditzen zait.

"Hezitzailea banku handian esertzen da eta leihotik kalera begiratzen du, beso bakoitzarekin bi haur gerritik (goxo) heltzen dituelarik. Haurren sudurrak eta esku-azpiak zabal zabalik kristalaren kontra. Lanera doan ama bat agurtzen ari dira"; "txikien hezitzailea gela handiaren erdian duela denbora bat alde batetik bestera dabilen handi batekin gurutzatzen da (haurra eskolan duela egun gutxi sartu da), eta, gurutzatzean, oso eztiki esaten du honen izena";

Batzuetan, hezitzaileak 'pixka bat

urrutira dagoen elkartrukea' ezartzen du. Beste zenbaitetan, mugimenduan agertzen da, lekuz aldatzerakoan lortzen duen ikus-eremu edota gerturatzearengatik. Maiz haurrekin zuzeneko harreman-posizioetan (aurrez-aurre eta gorputzez-gorputz). Arreta indibidualizatutako egoeratan. Argi eta garbi erakutsiz gorputzarekiko bere prestutasuna eta abegitasuna, 'behar banauzu... hemen naukazu', esango balu bezala...

"...begiratu eta irribarre atseginez jarraitzen dionean beste gune batzuetara arakatzera mugitzen den haurrari..."; "urrutitik, jolastokira ematen duen atetik, hezitzaileak mantala jantzi du eta kalean jolasean dabiltzan haurrei banan-banan deitzen die, garbitzera eta jatera sar daitezene..."; "urrutitik, (arriskutan) leihotik oso gertu aulkira igo den haurrari deitzen zaio...". "Zentzuzko distantzia batera geratzen da erorketa bat nabaritu duen hezitzailea, eta segundo para batez itxaroten du, erori den pertsonarentzako bere presentzia beharrezkoa izango den ala ez ikusteko...".

"Irten baino lehentxeago, hezitzailea gelan barrena dabil botila handi bat urarekin eta plastikozko bi basorekin, eta, horrela, irten aurretik ura edateko aukera eskaintzen du..."; "alfonbra ondoan eserita dagoela, hesiaren beste aldean haur bat lagunarengana hurbiltzen ari dela ikusten du, hozka egiteko asmoz. Hezitzailea, altxatu eta gertu-

ratu egiten da. Erasotzailea izan daitekeenaren izena esaten du, eta honek amore ematen du"; "sukaldetik bibe-roiarekin bueltatzean, txikietako batek ahoan ez duela ezer sartu frogatzen du".

"Lurrean eserita dago, zortzi haurrez inguraturik, metro karratu eskas okupatzen dute ipuin bat irakurtzen duenean..."; "haurrari sukarra neurtzeko kope-ta masailarekin ukitzen dio..."; "edo, lurrean eserita dagoela, lo ezin eginik dabiltzan haurren bizkarrean edo garondan masajeak egitean edo laztantzean..."; "lurrean etzaten denean bezala, non bi haur berehala txandakatzen diren bere gainean jartzeko...".

Begiratu eta ahotsa luzapen gisa

'Begiratu' eta 'esan' jokabide ugariak eta sarriak dira, eta, era berean, funtzio asko betetzen dituztela dirudi. Uste izan dut bai bata bai bestea, begiratzea eta esatea, 'klasean egoteko' moduak ere badirela; kokapen -eta lekualdatze-moduak, haurtxoen ikasketak-eszenatokietan barrena.

a) Badirudi hezitzailea 'kokatu' egiten dela, ikasgelan espazio bat mugatu eta okupatzen duela haurrek garatzen duten iharduerari dagokionez, abestu eta gauzak kontatzen dituenean. Hezitzailea, abestean eta kontatzean, eszenatokiko elementu garrantzitsu bilakatzen da; segurtasuna ematen duen elementua da, interesgarri diren informazioen iturri dena, haurra iharduerara, gauzak aztertzerako edo lasaitzerako bultzatzen duena...; halaber, 'talde-sentsazioa' ematen duen elementua da, ahots horrek bere baitan mugatzen eta elkartzen duen espazio sozialaren partaide izatearen sentsazioa ematen duena.

"Gauzak kontatzen dizkie, egunero-ko bizitza gertuenekoari buruz iruzkinak egiten dituenean"; "ipuinak eta bestelako fantasiatzko historiak kontatzen dizkienean"; "besterik gabe haurrekin hitz egiten duenean, jaten ari diren bitartean..."; "denek ezagutzen duten doinu bat kantatzen duenean

plastilina egiten edota margotzen ari diren bitartean..."; "gose direla abesten duenean... edo, besterik gabe, pozik dagoelako...".

b) Hitz egiterakoan, azterketa honetan ezagutu ahal izan ditudan hezitzaileek sarri askotan esaten dute haurtxoen izena; hainbat modutan esaten dute izena, helburu oso desberdinetarako.

"Taldearen aurrean falta direnak banan-banan aipatuz"; "eta txiki bati haur-oihala aldatzen dion bitartean, bere atzealdean min hartu duen baten izena esanez..."; "edo haur bati arreta deitzeko, bere izena ere esanez -besteak beste, bihurrikeria bat egiteko prest dagoenean, edo arriskuan dagoenean, edo molestutzen ari denean...".

d) Badira, bestalde, elkarriketaren bila dabiltzan hotsak eta begiratuak, horri hasiera emanez edo erantzunez; haurrek ere parte har dezaten lortu nahi dute, bere ekintzari esanahia emanez.

"Atsekabaturik negar egiten ari den haurrari erantzuten dio"; "erasotua izan den haurraren bozeramaile-lana betetzen du, 'utzi ni bakean, bale, bale, utzi ni bakean...' esaten duen bitartean".

e) Badirudi, halaber, hezitzailea 'lekuz aldatzen' dela ikasgelan barrena, nolabaiteko distantziara dagoen haurraren edo taldearen edo ahotsaren bitartez zuzentzen denean; horrela, bada, 'ahotsarekin zuzendu' eta han egotea, edo 'begiratuarekin zuzendu' -edo keinu txiki batekin- eta han egotea klasean duen kokapenari dagokion ohiko praktika da. Horrenbestez, hotsa eta begiratuaren eszenatokitik barrena mugitzeko lanabes bilakatzen dira, mezuak jaso eta bidali, eta komunikazio-moduak sortuz.

"Arrain-ontzitik arraina hartzekotan den haur kuxkuxeroari arreta deitzeko keinu batez edota ahotsa dela medio egiten ditu gela handiko zortzi metroak"; "urruntxeago beste haur bat egiten ari den ihardueragatik interes nabarmena erakusten du haurraren begirada bilatuz".

G A I A

Haur Eskola txiketako irakasleen "ezaguera praktikoa"

f) Badira beste adibide batzuk ere, non badirudien hezitzaileak ia aldi berean artatzen dituela plano eta distantzia ezberdinak... Horretarako gorputzaren posizioa keinuekin, ahotsekin konbinatzen du, aldi berean hainbat iharduera-gunetatik datozen eskaerei kasu egitea ahalbidetzen dion kokapena lortzen duen arte.

"Gorputz-tonu egokia izan dezake besoetan eztiki eta abegitasunez haur bati eusteko biberioia ematen dion bitartean, eta, aldi berean, beste bati 'begiratu zorrotza', bizia eta aginduzkoa egin diezaioke, zortzi metro baino gehiagora, kuxinak dauden tokian gertatzekotan zen eraso sahiesten duena...".

'Itxarotea eta berandutzea', hots, haurren beharren asebetetzea sarritan denboran ordezkaturia izan daitekeela onartzeko gaitasuna ez dago oraindik adin honetako haurren eskura; horrela, bada, hezitzaileek beren ahalmen espresibo eta komunikatzaile guztia erabiltzen dute ekintzaren eszenato-

"Presente daudela erakusteko hezitzaileek egiten duten ahalegin etengabea da patroi akademikoa ondoen definitzen duen ezaugarria"





kiaren plano desberdinetan gertatzen dena artatuz.

"Goizetan lehenengo orduan gela nagusian txikienak artatzen dituen hezitzailea, zeinak haurren ikus-eremutik mugitu behar izaten duen sukaldean biberioak prestatzeko. Aho-tsaren bitartez ere presente jarraitzen du, bi minutuz aldendu den eszenatokian".

Vicens Arnaizek aipatzen duen 'begiratu periferikoa' gaitasun honen modalitate bat izan daiteke; haren bidez, hezitzailea kokatu egiten da iharduera-gune bat espezifikoki artatzeko; baina halako moldez egiten du, non begiak jaso eta gainerako iharduera-gune ia guztiak goitik behera ikusi baititzake. Gainerako iharduera-gunez arduratu daiteke bere kokapena aldatu beharrik gabe, eta, berak une horretan zehazki artatzen duen norbanako edo taldearentzako duen prestutasunerako jarrera galtzeko premiarik gabe; eta gainera, beste norbanako eta taldeei 'presente dagoela' erakusten die.

Koordinazioa ekintzan: irakasle-bikotearen kokapenak

Tarteka, adin-talde bereko irakasle-bikotea ikus daiteke BATERA, aldi berean eta modu partekatuan eskuhartze bakarra egiteko. Beste batzuetan, sarriago, BEREIZTU egiten dira, espazioan barreiatu eta zereginak banatu egiten dituzte. Zereginak elkarbanatzen dituztenean oso maiz elkarren artean OSAGARRIAK diren

eginkizun eta zereginak banatu dituztela dirudi.

"Bi hezitzaileek batera abesten dute"; "biak plastikozko bi kaxetan eserita daude eta haurtxo bati eskua eskaintzen diote, bi urrats ematen dituelarik bataren eskutik bestearenera".

"Batek handiekin banku handian abestu eta salto egiten duen bitartean, beste hezitzaileak banan-banan eramaten ditu garbitzera eta haur-oihalak nola dauden ikustera"; "bata jolastokira irteten da talde erdiarekin, eta bestea geroxeago esnatzen den erdiarekin gelditzen da".

"Batak ipuina kontatzen du, eta bestea taldera joaten da (kontalariaren parez pare), sukarra duen haurra besotetan duela"; "hezitzaileetako batek haurrak gauzak jasotzera bultzatzen dituen bitartean, bestea jasotzen hasten da astiro eta isilik"; "batak korroa edo biribila antolatu eta dantza egiten duen bitartean, besteak abestu eta txaloak egiten ditu".

Hezitzaile-bikoteek beren mugimenduak, kokapenak eta ekintzak koordinatzen dituztela ikusi dugu, eguneroko zereginean bateratu, banatu eta osagarriak izan daitezen ikasle-taldearen aurrean. Horrela irakasleen presentzia indartuz.

Patroi akademiko honen azpiko "ezaguera praktikoa"

Aurreko azpiatalean Haur Eskoletako irakasleek bere presentzia erakuste-

ko 'egiten dakitena' eta 'egoteko duten modua' jasotzen saiatu naiz. Profesional hauek bere presentzia behatzen dutenean, interesa erakustean eta ondoren erantzuten dutenean... lortzen dute. Batzutan pixka bat urrutitik, beste batzuetan lekuz aldatzera-koan, maiz aurrez aurre. Abestu eta gauzak kontatzean ere bai. Haurtxoen izenak esatean. Hotsa eta begiratu eszenatokietan barrena mugitzeko erabiltzen dutenean. Irakasle-bikoteak bere posizioa espazioan eta bere zereginak behar den bezala antolatzen dituztenean...

Azken azpiatal honetan deskribatu berri diren iharduera-ildoek beren ikuspegi profesionaletik izan dezaketen zentzua aurkitzera arriskatu naiz. Behaketak zuzenki jasotzen ez duen eremuan sartzen ausartu naiz. Egiteko eta egoteko moduaren azpitik egon daitezkeen usteak, ezaguerak, printzipioak esplizitu bihurtzen saiatuko naiz.

Zer oinarri edo erregela egin daitezke beren praktikak ikusirik edo beren praktikarekin koherente izanik? Galdera hori erantzutean ez dut azterketa osatua, bukatua, koherentea, behinbetikoa... egin dela uste. Profesional horien irakaskuntza, eguneroko zeregin eta profesionaltasunaren ulerkuntza sakontzeko ahalegin gehigarri bat besterik ez du izan nahi.

Hauek izango lirake oinarrietako batzuk hezitzaileen asmoa beharbada jasoko luketenak, segurtasuna ematen eta pizgarria den beren presentzia erakusteagatik:

1. Neurri handi batean, gure ikasleak ikasteko egoeran izango dira, guk proposatutako iharduera-eszenatokiek eskaintzen dizkieten aukerak aprobetxatuz; betiere, aldezturik edota aldi berean gaitasunik badugu seguru eta onartuak senti daitezen beren oinarritzko beharra ederki asebetetzeko. Eta horretara lagunduko du, bereziki, presente gaudela erakusteko gure gaitasunak. Beren oinarritzko beharrak erregularki, sistematikoki eta egokiro asebetetzen badira bakarrik aterako

diote probetxua eskolako eszenatokie-
tan dauden aukerei.

2. Hein handi batean, gure ikasleek
hobeto aprobetxatuko dituzte propo-
satutako eszenatokiek eskainitako
aukerak, baldin eta gai izaten bagara
modu egokian eta garaiz helarazteko
haurrei gure ahotsa, keinuak, begira-
tuak... denak ere animozkoak, propo-
samenezkoak, kontrol eta erregula-
ziozkoak, baloraziozkoak, kontsignen
azalpenzkoak eta abar.

Erregela batzuk formulatu behar
balira beren praktikan egiten ikusi
diegunarekin koherente direnak,
beharbada segidan datozen hauek
labur-labur jasoko lukete duten gaita-
sun profesionala "haurrek behar zai-
tuzten lekuan eta garaian ere egon zai-
tezen":

Zure gorputzak garrantzi handia du:
utzi hitz egiten eta ikasi erabiltzen.
Ikasi, halaber, haurtxoen gorputza oso
adierazkorra, espresiboa dela ulertzen.
Zaindu ezazu kokapena; hala eginez
gero, 'begiratu periferikoak' eskain-
tzen duen bistaz gozatu ahal izango
duzu; era berean, ia ezkutuan dauden
hotsak entzun ahal izango dituzu
'entzute periferiko'aren bitartez.

Nahitaezkoa den desplazamendua
egin ezazu, haurrek nonbait kokatua
egon zaitez nahi dute. Desplazatu
zaitez presarik gabe, eta mugimen-
duan zaudenean ere izan zaitez abegi-
tsu.

Neurtu itzazu hitzak, garrantzitsu-
giak dira eta; horien bidez, haurren
izenak esaten dituzu, talde horretako
kide zarelako sentsazioa sortzen duzu,
eta horien (modulazioaren) bidez,
beraiekin zaudela jakingo dute, bai eta
zu nola zauden ere. Kontrola itzazu
hitzak, gehiegi edo altuegi hitz egiten
baduzu, eszenako benetako protago-
nistak 'estali' ditzakezu, eta gainera,
gutxiago eta okerrago ikusi eta
entzungo duzu...

Zaindu zure erantzunaren intentsi-
tatea eta azkartasuna; lasaitasun eta
autokontrol pixka bat ongi etorriko
zaizu behar baino gehiago ez esku har-
tzeko. Ez zaitez ezgaraiko izan: esku

G A I A

Haur Eskola txiketako irakasleen "ezaguera praktikoa"

hartu behar da, ez, ordea, oztopatu;
itxaron ezazu. Zure erantzunaren sor-
tan badago bat 'ez esku hartzean'
datzana; emaezu aukera molda daite-
zen, susta ezazu beren ekimena eta
autonomia: saia zaitez zure beharrik
hainbeste izan ez dezaten...

Halaber, saia zaitez gela partekatzen
duzuneko lankideari arreta jartzen;
bateratu itzazu zure mugimenduak,
kokapenak, eskuhartzeak... harenekin,
zuen eskuhartze-multzoa koherentea
izateko moduan, eta horrenbestez,
haren eskuhartzeak zure eskuhartze-
ekin (eta alderantziz) indartuak gera-
tzeko moduan et abar.

Trebezia profesional konplexuegia
da, printzipio eta erregelen bidez ego-
kiro ez jasotzeko moduko ñabardura
eta zorrotzasunez betea dagoena.
Horra hor erakusgai gisa eman dire-
nak, bai eta eskuhartzeen erabilera
konplexuaren adibide gisa ere.


"Irakasleak,
haurtxoen
sentimenduen
eta beharren
oihartzun-
kaxaren
antzeko
zerbait
bilakatzen
direla
iruditzen
zait"



eIkarrizketa

MANUEL ALVAREZ

“*Ikasketa prozesuen ebaluazioa kalitatearen ardatza da*”



Manuel ALVAREZ

Manuel Alvarez Madri-
leko Autonomi
Elkarteko Irakasle-
riaren Formazio Sailaren
burua da. Iruñean, Ikasto-
len Elkarteak Ebaluazioari
buruz antolatutako Jardu-
naldi Pedagogikoetan Eba-
luazioa "Europako Hezkun-
tza Sistemetan" izeneko
ponentzia aurkeztu zuen.
Egun, Curriculum zabala
duen aditu honen lana esko-
la zuzendarien profilaren
definizioan eskola antola-
kuntza eta zuzendaritzaren
azterketan datza, eta batik
bat bi ildoetan: irakasleria-
ren gainbegiratze eta eba-
luazioan eta aintzindaritzan.



Bere ustez, interesgarria da ebaluazio-
aren arloan gure kultur inguruko
herriek zer egiten duten jakitea. Gaur
egun erreforma bidean dauden hezkun-
tza sistema guztiak elkarri eragin die-
zaizokete; hori horrela, Europar Batasu-
neko mutur batean interesgarritzat jo
ohi den praktika beste muturrean moda
nagusi bihur liteke eta jaso ondoren
baita egokitu ere.

Guregan eragina handiena duten herrialdeetan zein dira nagusitzen diren modak?

Menpeko antolaketa eta administrazio
zuzendaritza buroprofesionala duten
herriak, Frantziaren eraginpeko herriak
dira eta hauen artean daude Italia, Gre-
zia, Portugal, Espainia eta beste maila
batean Alemania eta Austriako Hezkun-
tza Sistemak. Herri hauetako Hezkun-
tza Sistemak oso zentralizatuak daude
eta eskolak ez du ia autonomiarik.
Curriculumari, testuliburuari, irakasle-
aren hautaketari eta finantza zioari
buruzko erabaki garrantzitsuenak
lurrealdeko zentral erakundeetan har-
tzen dira. Eskolaren jardunbidea arau-
tzen duten legeak eta Eskubide eta
Betebeharren inguruko arautegia ere
ikastetxetik kanpo hartzen dira. Espai-
niako kasuan eskola kontseiluek badute
azken arautegi honen zati bat euren
gisara moldatzeko aukera.

Bigarren talde batean, antolaketa des-
zentralizatu eta zuzendaritza eta jar-

dunbide beregaina duten herriak, eremu
eskandinaviarrekoak ditugu, Holanda,
Suedia, Danimarka, Norvegia eta Fin-
landia. Kultura anglosaxoia jaso badute
ere parte hartze handiko kudeaketa
eredu sozialetarantz garatu direnak.
Hezkuntza arloko eragile guztiak, gura-
so, ikasle eta irakasleak egitasmo batera-
tu baten inguruan biltzen dira, Admini-
strazio zentralak, lurraldekoak edo
tokikoak ikastetxearen eskura uzten
dituelarik helburu instituzionalak eta
horiek garatzeko aurrekontua. Autono-
mia dute metodoak eta estrategiak
diseinatzeko, irakasleak hautatzeko,
baliabideak banatzeko eta curriculuma
haien beharretara egokitzeko.

Eta hirugarrenik antolaketa deszen-
tralizatu eta "manager" motako zuzen-
daritza duten herriak leudeke, betidanik
deszentralizazioaren eredu izan den
Ingalaterra. Erresuma Batua urte asko-
tan curriculumaren gaineko legeria zen-
tralik izan ez duen herri bakarra izan da.

Baina azken urte hauetan alda- ketak eman dira...

Bai hala da. Ikastetxeak administrati-
boki toki erakunde menpe zeuden
Local Educational Authority (LEA) eta
ikasleen ezaugarri eta ikastetxearen
ingurunearen arabera euren curriculuma
antolatu eta garatzeko autonomia eta
gaitasun osoa zuten. Estatu zentralak
noizbehinka hartzen zuten parte ordeko
lanak eginez. Thatcher Erreformaren
ondoren, 1988an, eredu zentralista

baten aldera jo da zerbait eta horrekin
batera LEAN eskumenak murrizteaz
gain ikastetxeetan nagusiki gurasoek eta
jaun-andere gorenak osatu eskola kon-
seiluei autonomia zabalagoa eman
diote. Nolabaiteko curriculum naziona-
la prestatu da, ingeles ikasle guztien
azterketa nazinalaren iturri izango dena
eta "Self-government" finantzazio-for-
mula berria sortu da, orain arteko diru
abantailak eskaintzeaz gain, materiala-
ren eta langileen arloetako kudeaketan
ikastetxeari autonomia zabalagoa emate-
ten diona.

Antolaketa desberdin hauen ara- bera zuzendarien izaera eta egite- koak desberdinak al dira?

Lehen taldeko eruedetan eskolako
zuzendaritza taldearen profila admini-
stratiboa da eta ikastetxeko administra-
zioaren ordezkaria da, Frantziar adibi-
dez zuzendaria ministroaren ordezkaria
da. Bere eginkizun garrantzitsuenak:
Parlamentuak eta Gobernuak ematen
dituzten lege eta arauak bete eta bete-
raztean daude. Ikastetxe mota honek ez
du autokontrolaren edo autoebaluazio-
aren kulturarik, ondorioz ezin dugu egi-
tasmo edo egitasmoen jarraipen eta
gainbegiraketaz edo barne-egituretan
hartzen diren erabakiez hitz egin. Barne
kontrola aipatzen dugunean zuzendari-
tzatik bakarrik egiten den kontrol hie-
rarkiko eta bertikalaz hitz egiten ari
garela diogu.

Antolaketa deszentralizatueta zuzen-

MANUEL
ALVAREZ



“*Europako ebaluazio sistemak anitzak dira, duten hezkuntza sistematik eratorriak*”

daria ikastetxez kanpoko hautagaien artean aukeratzen da, ikastetxeko ordezkari sozial eta profesionalen laguntzaz. Hautagai horrek hezkuntza proiektu bat lankidetzan mailan garatzeko eta ikastetxeak berak egiten dituen aldiak aldiko ebaluazioetan diagnostikatutako arazok konpontzeko gaitasun eta trebetasun onenak izan beharko ditu.

Zein paper jokatzen du Barne ebaluazioan?

Curriculumak kudeatzen duten egituraketako arduradun zuzenekin batera ikastetxea barrutik kontrolatzen dute. Kontrol horren erreferenteak beti eskola erkidegoak toki administrazioarekin negoziatu dituen ikastetxeko egitasmoa eta aurrerapenaren eta kontrolaren eragileak dira.

Ikastetxeak bere elkarbizitza eta jarduna arautuko dituen barne-araudia izan lezake. Zuzendaria litzateke barne ebaluazio eta gainbegiraketaren azken erantzulea.

Antolaketa deszentralizatueta berriz, eta Thatcherren erreformaren ondorioz, zuzendariak “Manager” baten arabera lan egiten du eta arrakastaren eta porrotaren arabera aurrekontua kudeatzen du, hau da, emaitza akademiko, ikasle kopuru eta kanpoanduen irudiaren arabera izango da jasoko duen aurrekontua. Zuzendariak barne kontrolaren ardura hartzen du eta helburuak zehazten eta aurrekontu sailak finkatuko dituen eskola kontseiluaren ordezkari da. Kontseiluak irakasle bakoitzarekin hitzartutako adierazlearen arabera ebaluatuko ditu irakasleak aldiak aldiak. Irakasleei jarraipen lana egingo die eta horretarako diru-pizgarri edo sariak eman. Urtero ikasketa buruarekin bilduko da irakaslea eta heldu den ikasturteko helburuak ezarri eta negoziatuko dituzte eta helburu hauen lorpen mailaren arrakasta edo porrotak irakaslearen soldata eta lanaren iraupena baldintzatuko ditu.

Eta kanpo ebaluazioak ere desberdinak izango dira antolaketa-aren arabera ...

Lehenengo hezkuntza sistemaren ardura duen estatuak eskola ikuskatzailetza zerbitzuen bidez egiten dute. Hauek goragoko instantziei txostenak

bidaltzen dizkie arautegia betetzen ote den adieraziz. Ikastetxeek ez dute kanpo ebaluazioaren bidez beren emaitzen berri ematen. Administrazio jardunbideek emaitzek baino garrantzi handiagoa dute. Azken urte hauetan ikuskatzailetzaren zereginak aldatuz eta bereiziz joan dira. Mailaz mailako ikuskapenaz gain curriculumaren arautegia eta programazioaren garapena begiztatzen da ere.

Bigarren taldeko kanpo ebaluazioa Hezkuntza eta kudeaketa arloak aztertzen dituen kanpoko auditoretza baten bidez egiten da noizean behin eta lortutako helburuak ebaluatzen ditu. Lan honetan ikastetxearen testuinguruaren arabera hitzartutako kalitate adierazle eta estandarrak hartzen ditu kontuan. Emaitzak ezezekoak badira edo ikastetxea helburu nazionaletik gehiegi urrundu bada, ikuskatzailetzak tokikoak edo nazionalak, txosten bat egiten du egoera sakonago aztertzeko.

Eredu ingelesari dagokionean, bere alderdi deigarriena izango da. Thatcher Erreformatoren Act-88tik aurrera, Accountability Kudeaketaren eredu bere gordintasunean ezarri zen. Bi metodo erabiltzen dira: urtero 7,9 12 eta 15 urteko ikasleek azterketa nazionalan lortu dituzten emaitzen berri eman behar dute. Bestalde, ikastetxe bakoitzak lau urtetik behin hezkuntza eta kudeaketa arloetako auditoretza-etxe bat kontratatu behar du, ikastetxearen jardunbidea eta haren emaitza osoak aztertzeko. Auditoretza-etxe honek prestatutako txostena tokiko hedabideetan argitaratzen da. Ebaluazio hauen emaitzek baldintzatuko dute ikastetxearen jarduna, ospea, ikasle eta aurrekontu kopurua eta emaitzak ez hobetzearren ikastetxe beraren iraupena.

Beraz eskola erkidegoaren partaideen papera eta kalitatearen kontzeptua desberdinak izango dira ...

Ball-ek (1997) dioenez, estatuak monopolioa duten sistematan heziketa-sistemaren protagonistak, hurrenez hurren: Administrazioa, erantzukizun gehienak beregain hartzen dituen gainontzeko erabiltzaile guztiak adin txiki-koak bailiran eta irakasle funtzionarioak interes eta balore gorporazio-talde beza-

la diharduelarik. Honela, kontrola administrazio eta sindikatuen artean banatzen da, erabiltzaileak galtzaile ataritzen dira, kontrolerako sistema burokratiko batean guraso eta ikasleak ez baitaude behar bezala antolaturik erakunde profesional eta sindikal botere-tsuek defendatzen dituzten profesionalen aurrean. Kalitateaz hartzen da arautegia eta legeria betetzea zehatz-mehatz. Ondorioz, eskola porrota hezkuntza legeria gaizki ezartzearen ondorioa da. Eskola barnetik zuzendariak eta kanpotik ikuskatzaileak kontrol zorrotza egiten badute, Estatuak eta komunitateak nahi duten kalitate maila erdietsiko da.

LODE, LOGSE eta LOPEGCE legeek eragina izango zuten Espainian ...

Autonomia txikia erakarri dute lege hauek. Legegileen ustez, kalitateak berarekin baitakar nola edo halako autonomia, batez ere zuzendaritza taldea aukeratzeko eta eskolako curriculum eskariei eta ikastetxeko testuinguruari egokitzeak. Burokraziaren ohitura eta funtzionarioen kulturak duen pisuak hor darrai: hezkuntza sistema espainola batez ere kanpo mailan ikuskatzaileak egiten duen kontrol zurrunean mugitzen da. Barneko mailan zuzendaritza profesional egonkorra ez egoteak eta dagoenaren aginte-jarduna gorporazio-ereduek erlatibizatzen dutenez, ez da behar bezalako kontrol egiten. Ondorioz irakaskuntzaren kalitatearen zama soilik irakasleen erantzukizun profesionalaren baitan uzten da.

Bigarren motako antolaketaren erabiltzaile dira ikasle eta gurasoak. Azken hauek interes berezia agertzen dute euren seme-alaben hezkuntza eragina duen guztian, ikastetxeko erabaki garrantzitsu guztietan parte hartzen dute normalean. Holandan eta Danimarkan gehiengoa dute eskola kontseiluetan.

Sistema honetako kalitatea zuzenki erlazioz dago emaitzekin, hau da, zuzendaritza eta hezkuntza proiektuan aurrez hitzartutako aurrerapen eta kalitatezko adierazleen bidez helburuak bete diren edo ez jakitearen arabera.

Ingalaterran gurasoak hezkuntza eskaintzaren erabiltzaileak dira. Eskubi-

de osoa dute libreki inolako oztoporik gabe ikastetxea aukeratzeko dituzten interesen eta eskaintzen zaizkien ikastetxuen arabera. Gehiengoa dira eskola kontseiluetan eta hauek hautatzen dute zuzendaria. Gurasoak dira hezkuntzaren benetako parte hartzaileak.

Kalitatearen kontzeptua aurrekontuen etekinei eta emaitza akademikoei loturik dago, estandar nazionalak, ikastetxe bakoitzaren testuingurua kontuan izan gabe.

Nork ipintzen ditu ebaluazio irizpideak sistema bakoitzean eta nolakoak dira kalifikazioak edo familiei eman beharreko argibideak?

Frantzez iraultzaren ondorengo hezkuntza sistemetan estatu zentralak edo herrialdeetako gobernuek ezartzen dituzte irakaskuntzaren helburuak eta edukiak eta gutxieneko helburuak ebaluatzeko irizpideak. Maila teorikoan Espainia da irakasleei ta ikastetxeari arlo honetan askatasun zabalena uzten dien bakarra. Aldiz, Frantzia eta Alemania dira zentralistenak, Batzar Nazionalak emandako legeetan ezartzen dira eta ez dute testuliburuak aukeratzeko askatasunik ere.

Kalifikazioei dagokionez, Italia salbu, ez dira egiten iraileko azterketa ezta errekupezioren ere Espainian ulertzen den moduan. Beti eta automatikoki ziklo batetik bestera igarotzen dira. Frantzian berriz, zenbait kasutan ikasleek Lehen Hezkuntza behin eta Bigarren Hezkuntza beste behin errepika dezakete kurtsoa.

Denek bat egiten dute azterketak beharrezkoak direla eta hiruhileko bakoitzaren amaieran egiten dira, kalifikazioaren oinarri direlarik. Espainia eta Portugalen izan ezik, azterketak idatziz eta ahozkoak izaten dira. Frantzian LHn ez da azterketarik egiten baina lan guztiei balioa ematen zaie. Gurasoei, Espainiako LHn gertatzen den antzera, estatuak helburu antzera zehazturik dituen ikaskuntza gaitasunen balorazio osoa ematen zaie. Gainontzeko herrietan kalifikazioak ematen dira ikasturtean hiru aldiz.

Unibertsitatean sartzeko Espainian bakarrik egiten dira selektibitate frogak. Portugalen oso jende gutxi egiten



ditu ikasketak hauek eta Frantzia, Alemania eta Italian fakultate bakoitzak ipintzen ditu numerus-clausus eta hautaketa DOBHko batz-beste emaitzaren arabera egiten da,

Hezkuntza sistema ingelesak alde handia azalduko du ...

XVIII eta XIX. mendeko Industri Iraultzatik ateratakoa da eta herri bakoitzeko Kultura eta garapen historikoa desberdina izan denez, desberdintasun garrantzitsuak erakarri ditu.

Ikasleek 6 urtetik 16 urte arte derri gorrez egon behar dute eskolan. Bi ebaluazio mota izaten dituzte: batetik ikastetxeko irakasleek ipintzen dizkieten ahozko eta idatzizko azterketak Hizkuntza, Matematika eta Zientzi arloetan. Estandar nazionalaren arabera zuzentzen dira.

Bestetik Administrazio zentralako langileek ipintzen dizkietenak, 7,11,14 eta 16 urtekin. Irakasgai instrumentalak aztertzen dira idatziz eta atzerriko hizkuntza ahoz. Ikasketak ebaluatzeko kontuan hartzen da emaitza hau.

16 urtetako azterketa errebalida da eta General Certificate of Secondary titulua eskuratzen du. Azterketa ahozkoa eta idatzizkoa da eta goi mailetako ikasketak egiteko aukera ematen du.

Orokorrean ikaslea ziklo batetik bestera igarotzen da automatikoki ordurarte lortu duen emaitza kontuan izan

MANUEL
ALVAREZ

e

“

Eremu eskandinaviarreko herriak oso sistema deszentralizatuak dira, curriculumaren, ekonomiaren eta langileen arloetan ikastetxeari autonomia handia ematen diotenak ”



gabe. Ohikoak ez diren kasuetan ikasleek kurtsoa errepika lezakete edo jauzia egin guraso, psikologo eta ikastetxearekin elkarrizketa izan ondoren.

Unibertsitatera sartzeko General Certificate of Education titulua eta Batxilergo titulua behar du. Ondoren sei karrera aukera ditzake eta Unibertsitateak aukeratzeko dituen ikasleak eskaera eta ikaslearen curriculum akademikoaren arabera.

Ingalaterran ez dago testuliburu ofizialik, irakaslearen esku dago liburuak erabiltzea eta kasu horretan zeintzu erabiltzea.

Ondorioz herri eskandinaviarreko ebaluazio sistema ere desberdina izango da ...

Hala da, baina Thatcherren erreformaren aurreko hezkuntza-eredu ingeles indartsu eta deszentralizatuaren eragin handia du. Sistemaren maila eta ziklo guztien amaieran ahozko zein idatzizko azterketak egiten dira. Ez dute memoria soilik kontuan hartzen eta lanei balio handia ematen zaie.

Ikastetxeek eta irakasleek autonomia zabaldu dute edukiak, ikasgai bakoitzeko ezarriko diren orduak eta ebaluazio irizpideak finkatzeko. Hau azterketa nazionalik ez izatearen ondorioa da, testuliburuak eta curriculum gaineko gaiak dohakoak dira eta estatuak finantzatuak.

Sistema bakoitzak dituen berezitasunak ezagutu ondoren, zein ondorio azpimarratuko zenituzke?

1.- Kanpotik egindako ebaluazio instituzionala ikastetxeko irakasle eta ikas-

leentzat bermea da.

2.- Ikastetxeko prozesuen ebaluazioa kalitatearen ardatza da.

3.- Diagnostiko gisa egindako barruko ebaluazioa, kalitatezko erabakiak hartzea ahalbideartuko duen datuak eskuratzeko oinarritzko abiapuntua da.

4.- Herri bakoitzak duen ebaluatzeko modua hezkuntza bere osotasunean hartzearen ondorioa da.

5.- Ikastetxearen autonomia hezkuntza eta proiektu curricularra elkarren artean prestatzea eta testuinguruko adierazlearen arabera aldi aldi ebaluatzeko baitan dago.

6.- Gizarte eragileek (Kanpokoek, Udalekoek edo barnekoek, gurasoek) laguntzeaz gain, sistemaren eta ikastetxearen kontrola beregain hartzen dute.

7.- Ia herrialde guztietako irakasleak, gatazkak gatazka, accountability edo kanpoan kontuak ematearen metodoa onartzen joan dira. Prozesu hau errazagoa da sistema deszentralizatu eta administratiboki Udalaren menpe dauden ikastetxe beregainetan.

8.- Sailkatzeak dauden ohiko ereduak beste bide batzuk bilatzen saiatu arren, aztertu diren herri gehienetan, eta BHN batik bat, zenbakizko kalifikazioak erabili ohi dira. Lehiarako grina bultzatzen da eta arrakasta eta porrotaren arteko desberdintasunak areagotzen dira.

9.- Etorkin asko dauden herrialdeetan etorkinen artean ematen den eskola porrota eta baztertutako pertsona taldeak sortzeko arriskua da kezkarik nagusienetakoa, honek berarekin dakarren indarkeriarekin.

eskola ekologika




CIEN D



euskal
heziketarako
aldizkaria

29



Eskola ekoauditoriak

Ingurugiroarenganako
kezka baino
gehiago

Eskola Ekoauditoria

Ingurugiroarenganako kezka baino gehiago



Zer da eskola ekoauditoria? Galdera honetan eskola, ekologia eta auditoria kontzeptuekin egiten dugu topo. Gure ikastetxearen eguneroko jardunean present dauden kontzeptuak, hain zuzen ere. Izan ere, eskola ekosistema bat da, materiala eta energia kontsumitzen ditugu eta hondakinak sortu ere bai. Horretaz kontziente bagara eta ekologiak kezkatuta bagaude, gure kontsumoa, jokaerak eta ohiturak zaindu behar ditugu. Horixe da, hain zuzen ere, ekoauditoria.

Ekoauditoriaren helburua inguru-nea aztertu eta gure ekintzen eragin kaltegarriak gutxitzea da. Ekoauditoriaren bidez eskolako ekintzek gure ingurunean sortzen duten inpaktua aztertzen da. Baina ez aztertu soilik, ondoren ekintzak burutzen dira egoera hobetzeko asmoz. Izan ere, "aritu" gabe "ikuskatzea" ez litzateke ingurugiro heziketa izango. Ingurugiro heziketa inguruaz hezitzea, inguruaren bidez hezitzea eta inguruaren alde hezitzea da.

Ingurugiroaren alde hezitzea ekonomia eta ekologiari buruzko ezagutza izateaz gain, konpromezua hartzea da. Konpromezu hori eguneroko portaeran eta kontsumo indibidualan isladatu behar da.

Horregatik, irakaskuntza-ikas-kuntza prozesuak gure mugak zabalteko bitartekoa izan behar du,

hausnarketa bultzatu behar du bai maila indibidualean eta baita eskola mailan ere. Horixe da ekoauditoriaren zeregina.

Ekoauditoriaren helburuak

Eskola ekoauditoriaren helburu nagusiak lau direla esan daiteke:

- Irakasleriaren sentsibilizazioa eta inplikazioa lortzea ingurugiro heziketako ekintzetan.

- Heziketa arlo desberdinak lantzea: ezagutzak hartzea, ingurugiro-arekiko sentsibilizazioa lortzea eta ingurugiroa babesteko eta hobetzeko ekintzetan zuzenean parte hartzea.

- Eskolako ingurugiro praktika hobetzea errekurtsoen kontsumoa eta hondakinen produkzioa gutxituz.

- Eskolako heziketa egoera hobe-

tzea.

Helburuok lortzeko ikastetxeko kide guztiek hartu behar dute parte. Hobekuntzak lortzeko landu eta ikuskatu behar diren elementuen artean hauek aipa daitezke:

- **Kanpoko esparrua:** baratzak eta gune berdeak sortu, hesiak kendu, zuhaitzak landatu, hegaztientzako habiak prestatu...

- **Barneko esparrua:** gelen aniztasuna, geletako dekorazioa, altzarrien eta materialen banaketa eta eskuragarritasuna...

- **Garraioa:** bizikletak erabili eta hauek aparkatzeko leku egokiak jarri, motordun ibilgailuen errebisioa eta zein gasolina mota duten ikusi, autoak banatu hainbeste auto ez erabiltzeko...

- **Ur kontsumoa:** zisternentzako erreduktoreak erabili, zisterna eta komuneko egoera etengabe kontrolatu, itoginak errebisatu, lorategiak neurritz ureztatu...

- **Energia kontsumoa:** argiak modu egokian erabili, aireztapena eta isolamendua, beroa kontserbatu, termostatoak erregulatu, ur beroa, temperatura eta itoginak errebisatu...

- **Material suntsigarrien kontsumoa:** paper birziklatua erabili, toxikoak ez diren garbitasuneko produktuak erabili, gehiegizko enbalajeari muzin egin, aerosolak errefusatu, toxikoak ez diren kola, zuzentzaile, pinturak eta abar erabili...

- **Hondakin-murrizketa eta birziklapena:** paper gutxiago erabili, papera aprobetxatu, erabilitako paper eta kartoiak bildu, papera birziklatu, kristala, plastikoa, pilak, latak eta abar bildu, erabili eta botatzeko plastikozko edalontziak ez erabili...

- **Toki amakomunen erabilera:** liburutegiko ordutegia zabaldu mailegu zerbitzua bultzatzeko, ludoteka, musika gelak eta jolasteko beste aretoak elkarren artean banatu, komunitate mailan antola-

tzen diren ingurugiro kanpainen parte hartu (zuhaitzaren eguna, uraren eguna...), korridoreak erakusketak egiteko erabili, areto eta gelak herriko beste taldeei utzi...

Arlo bakoitza ikuskatu ondoren arazoak zein diren ikusten da, eta aipatzen diren ekintza horiek eraman litezke aurrera. Horretarako, arazoak konpontzeko helburuak jarri behar ditugu eta hobekuntza lortzeko ekintza-plan bat eratu behar da. Plan honen jarraipena eta ebaluaketa burutuko dira jarraian eta azkenean horren berri eman (1. taula)

Auditoriak erabilgarria, zehatza eta berrikusteko eta hobetzeko modukoa izan behar du. Horregatik, hasieran ez da derrigorrezkoa arlo guztiak lantzea. Hobe da aurrera eraman daitezkeen gauzeekin hastea, eta horiek curriculumaren barnean sartuz joatea.

Klabea: guztion parte hartzea

Eskola ekoauditoriak bere eguneroko ekintza txikiakin eskolako partaide guztiak inplikatzeko lor dezake. Eskolan burutzen diren ekintzek (paper biltzea, eskolako baratza...) atezaina, gurasoak, udaletxeko teknikariak eta abar inplikatzeko dituzte. Gero, energia aurrezteko ohiturak etxean zabalduko dira. Eta ondoren, ingurugiro kalitateari buruzko kezka auzoan eta herrian zabalduko da.

Azken finean, eskolan burutzen diren ekintzak inguruko errealitate kultural, sozial eta naturalarekin lotu behar dira. Honek irakasleriari esfortzua eta aldaketa eskatzen dizkio. Hots, irakasleriak hausnarketa kontzientea egin behar du. Zehar-lerroen inguruko hausnarketa egitean, esaterako, hauei ematen diegun garrantziak eta tratamenduak ematen diegun balorea isladatuko dute. Horregatik, garrantzitsua da irakasle bakoitzak bere kontsumo ohituren eta bizimoduaren inguruko hausnarketa

“ Ingurugiro heziketa inguruaz hezitzea, inguruaren bidez hezitzea eta inguruaren alde hezitzea da”

“ Eskola ekoauditoriak bere eguneroko ekintza txikiakin eskolako partaide guztiak inplikatzeko lor dezake”

egitea (ura, energia, materialak... nola erabiltzen dituen, alegia). Horrela, gure erabakiek zein ondorio ekologiko dituzten ohartuko gara eta baita ingurugiro arazoetan zenbat parte hartzen dugun ere. Hausnarketa hau geronek egin behar dugu lehenengo, eta gero egin arazi ikasleei.

Ikasleek ingurunea errespetatzen ikasi behar dute eta hori lortzeko zuzenean inplikatu behar dute ekoauditorean. Bere ingurunearen hobekuntzan parte hartu dutela ikustean, askoz ere inplikatuagoak sentituko dira eta egingo duten balorazioa ere


“ Auditoriak erabilgarria, zehatza eta berrikusteko eta hobetzeko modukoa izan behar du”

hobe izango da.

Barneko esparruan (erakusketak, landareak...) eta kanpoko esparruan (lorategiak, baratza...) egin izan diren esperientzien ostean ondorio hauek ikusi dira:

- ikasleriaren portaera hobe.
- hondakin kopuruaren gutxitzea.
- ikasteko eta lan egiteko giro hobe.
- irakasle eta ikasleen arteko harreman hobe.
- ikastetxearen irudi hobe.
- curriculumeko helburuak lortzeko aukera gehiago.

1. taula



Ekoauditoriak abantaila asko ematen ditu, beraz, baina horretarako ez da nahikoa batzuen gogoia soilik. Ikasleria osoa inplikatu behar da. Guztiek konprometitu behar dute eguneko ordu askotan bizi diren lekua hobetzeko eta errekurtsioak hobeto ustiatzeko.

Konpromezu hori benetakoa izan dadin, irakasleria eta ikasleriaren artean banatu behar dira eskolako zereginak, gelako gestioa eta gelako eta zen-

troko antolaketa eta funtzionamendua.

Garrantzitsua da, era berean, ikasleak komunitateko partaide sentiaraztea jarrera positiboak bultzatzeko eta ingurugiroaz kezkatzeko. Horretarako, inguruko jendearekin eta zentroekin harremanak bultzatu behar dira, zentroa garbi mantentzeko bitartekoak eman eta ingurugiro arazoei buruzko informazio zabala eskaini.

ESKOLA EKOAUDITORIA

CEIDAREN zerbitzua

Eskola Ekologikoa eta ekoauditoria praktikan jartzeko eta gauzatzeko lehen pausoak nola eman? Nori eskatu laguntza? Horretarako daude CEIDAREN zerbitzuak. Ingurugiro Sailordetza eta Hezkuntza Sailaren artean 1989. urtean sortutako Ingurugiro Heziketarako zentroak dira. Helburu nagusia ingurugiroari dagokion heziketa Hezkuntza Sistemazabaltzeada. Izanere, ingurugiroaren arazoak gizartearen jokamoldu eta eredu sozioekonomikoan sustraituta daude, eta horretan datza hezkuntzaren erantzukizuna, garapen eredu sustengarri baterako hezitzea.

Heziketa horretan laguntzeko zereginen CEIDAK "Ihiza" buletina bidaltzen du ikastetxe guztietara. Bertan han-hemenka egindako esperientziak jasotzen dira eta zentroetan eskuragarri dauden material didaktikoen eta hainbat proiektuen berri eman ere bai.

Halaber, "Garatu plana" liburua ere ikastetxe guztietara bidaltzen du eta irakasleen prestakuntzarako ikastaroak ere antolatzen ditu. Era berean, CEIDAKO egoitza dokumentazio zentroetan material desberdina dago eskuragai: liburuak, unitate didaktikoak, bideoak eta abar. Guztiak ere ingurugiro heziketa aurrera eramateko prestatuak daude.

Gaur egun CEIDAK lau egoitza ditu eta hauek dira helbide eta telefonoak:

* BILBO 48004
Txurdinaga auzoa
Ondarroa kalea, 2
Tlf. (94) 411 49 99

* GASTEIZ 01013
Vicente Manterola z/g
Tlf. (945) 27 51 00

* DONOSTIA 20015
Intxaurren auzoa
Baso-txiki kalea, 5
Tlf. (943) 32 18 59

* LEGAZPI 20 220
Brinkola auzoa
Tlf. (943) 73 16 97

Eskola ekologikoa

Ekoauditoria ez da ingurugiroa lantzeko, aztertzeko eta hobetzeko egiten den lan bakarra eskolaren barnean. Ekoauditoria Eskola Ekologikoaren barnean kokatzen da, bigarren taulan ikusten den bezala.

Ingurugiro heziketa lantzeko hiru zutabeak ekoauditoria, diziplinarteko tratamendua eta ingurugiro tailerrak dira. Hirurak Ingurugiro Gutuneko oinarriak betetzeko burutzen dira eta Ingurugiro Batzordea arduratzen da guztia koordinatu eta kontrolatzeaz. Ingurugiro Gutuna batzorde honek egiten du arazoak identifikatzeko eta eman behar diren pausoak zehazteko.

Azken finean, Eskola Ekologikoa ingurugiro heziketa bultzatu nahi duen proiektua da. Bere helburua zentroko partaide guztiak (irakasleak, ikasleak, zuzendaritza, mantenimenduko langileak eta gurasoak) eta udalerriko agintariak inplikatzeko da. Guztien artean eskolan sortutako ideiak barruan zein kanpoan aurrera eramatea da gakoa.

Eskola Ekologikoa bultzatzeko "Eco-schools" izeneko Europa mailako proiektua dago. Bertan parte hartzen duten ikastetxe guztiak oinarriko zazpi puntu jarraitzen dituzte:

1- Ingurugiro batzordea: batzorde hau ikastetxe bakoitzean autonomoki hautatzen da, beti ere eskola partaide guztiak daudelarik: ikasleak, irakasleak, mantenimenduko langileak, gurasoak eta zuzendaritza. Batzorde honek planifikatu, antolatu eta ebaluatuko du Eskola Ekologikoa.

2- Ingurugiro auditoria: lana hasiera-ko egoera baloratzuz hasten da. Hau da, eskolako eta herriko ingurugiroaren egoera aztertzen da dauden beharrak ikusteko.

3- Ekintza-plana: auditorian lortutako informazioarekin batzordeak ekintza-

plana burutuko du. Helburuak eta datak zehaztuko dira bertan ekintza berriak martxan jartzeko eta burutzen diren ekintzak hobetzeko. Ekintza-plana ikastetxe osoan eramango da aurrera eta Jarrera Kodea ezarriko da ikasleentzat, irakasleentzat, gurasoentzat eta guztientzat.

4- Kontrola eta ebaluazioa: programaren kontrola eta ebaluazioa ekintza-planarekin batera burutu behar dira. Ikasleek kontrol honetan parte hartu beharko dute. Garrantzitsua da ingurugiro heziketa lan teorikoa soilik ez izatea.


5- Oinarriko gaiak: proiektu honetan hiru dira azpimarratzen diren gaiak: ura, energia eta hondakin solidoak. Lehenengo gai hauek lantzen dira eta ondoren ikastetxe bakoitzak proposatzen dituenak.

6- Informazioa eta inplikazio maila: publizitate on batek eskolan landutako gaiak komunitate osoan ezagutzea eragingo du.

7- Jarrera Kodea: guraso, ikasle eta irakasleen artean negoziatuko da kode hau eta ekintza-planarekin eta zentroak hautatuko gaiarekin erlazionaturik egongo da. Kode honetako puntu bakoitzak ekintza zehatz bat eta helburuak betetzeko erraza dena deskribatuko du. Ezin baita erabaki papera bilduko dela errezi-klatzeko hori egiteko inor prest ez baldin badago. Gai bakoitza landu ondoren kodea aldatu ahal izango da.

Hau da proiektu honek proposatzen duen antolaketa Eskola Ekologikoa aurrera eramateko.

2. taula



“Ez da ekoauditoriaz soilik hitz egin behar, eguneroko aldaketak dira benetako pisua hartzen dutenak”

Laudioko Lateorro herri ikastetxea azken urte hauetan eskola ekologikoa bihurtu da. Ingurugiro heziketari behar zaion garrantzia eman diote eta irakasle zein ikasleek serio hartu dute. Egiten ari diren lana emaitzak ematen ari dira eta eskola osoa dugu horren testigu.

Noiz hasi zineten Lateorro herri ikastetxean ekoauditoria lantzen?

Proiektu honekin duela lau urte hasi ginen.

Eta zein helburu edo asmorekin ekin zenioten?

Gure asmoa ingurugiro heziketa eskaintzea zen eta batez ere ikasleak ingurugiroa zaintzeak duen garrantzia ohartzera. Horregatik hartu genuen bide hau eta ekoauditoria martxan jarri.

Zein adinetako ikasleekin lantzen duzue?

Eskola osoak parte hartzen du, Haur Hezkuntzatik hasten garelarik ingurugiroa lantzen. Hori bai, bakoitzak bere mailan eta ahal duen neurrian lantzen ditu gaiak.

Zein da zuen proiektuaren muina, zer lantzen duzue?

Gure ekoauditoria kontsumoan zentratzen da. Honen barnean lau elementu lantzen ditugu: elektrizitatea, uraren kontsumoa, gasoila eta papera. Gure inguruan eragin gehien dutenak dira eta lantzeko interesgarrienak direnak.

Zein pauso ematen dituzue, bada?

Lehenengo, ikasturte hasieran aurreko ikasturteko memoria begiratzen dugu zein egoeratan gauden jakiteko. Horrekin batera datu bilketa bat egiten dugu. Honekin, gure kontsumoa nolakoa eta zenbatekoa den ikustea lortzen dugu. Ondoren, landuko ditugun proiektuak zehazten ditugu, eta bakoitzean burutuko ditugun ekintzak: grafikak, komentarioak, hilabeteroko ebaluazioa edo kontrola, egonaldia...

Horrez gain, irakasleentzat ingurugiroari

buruzko foro bat egin izan da Gasteizen eta bertan parte hartzen dugu.

Ekintzok nola txertatzen dira eskolako eguneroko jardunean?

Egia esan, guk ingurugiroa zeharlerro gisa lantzen dugu. Printzipioz EAEn ez da derrigorrezko zeharlerroa, baina guk eskola bezala garrantzitsua dela uste dugu eta sartuta daukagu. Ohitura onak arlo guztietara zabaltzen saiatzen gara.

Aipatu ieazkiguzu lortu dituzuen ohitura aldaketa batzuk.

Adibidez, gela guztietan paperak botatzeko soilik den zakarrontzia dago. Txikitatik dakite zakarrontzi hori paperarentzat soilik dela. Eskulanak egiteko, aurretik erabilitako materiala berrerabiltzen dugu. Pasabideetan ere landareak eta kartelak ipintzen ditugu.

Urari dagokionez, txorrot automatikoak jarri ziren eta horrela ura aurrezten dugu. Fotokopiak ere orriaren bi aldetatik egiten saiatzen gara beti. Mendira joaten bagara, berriz, inori ez zaio bururatzen papera lurrera botatzea. Eta botatzen badu, berehala begiratzen dio norbaitek aurpegi txarrez.

Bestalde, eskolaz eskolako muntatzen diren tailer mugikorretan ere parte hartzen dugu. Hauetan kontsumoarekin lotutako gai konkretu bat latzen da.

Ikastetxetik kanpo, herri mailan ere zenbait ekintza burutzen dituzue.

Bai, egoera guztiak aprobetxatzen ditugu ingurugiroa lantzeko: zuhaitza eguna, ingurugiro eguna, uraren eguna...

Orain dela gutxi herri mailako kanpaina bat egin zen ikastetxe guztientzat. Talde batzuk zaborraren prozesuari buruzko bideo zuten. Herriko “Garbigune”ra ere bisita egin genuen. Iaz inauguratu zuten gunea da eta bertan produktu desberdinak biltzen diren ontziak daude: papera, olioak, plastikoa, kristala... Kanpaina bukatzeko jokoak eta rally bat egin ziren herrian.

Zenbateraino inplikatu dira ikasleak?

Asko eta oso kontzientziatuta daude gainera. Alde horretatik ezin gara kexatu.

Eta irakasleria? Zeren zuen papera ere garrantzitsua da, noski.

Bai, dudarik gabe. Haurrak inplikatzera nahi badugu, gu guztiok ere inplikatu behar dugu. Horretarako, irakasleok elkartu egiten gara eta adostasun minimo bat lortzen dugu: zein helburu lortu behar diren eta horretarako zer egin behar dugun (papera birziklatu, grafikoak jarri, produktu autoktonoak nola lantzen diren ikasi...).

Aldaketa hauek ikasturte hasieran finkatzen dira eta irakasle guztiok inplikaturik gaude. Denok aldatu behar ditugu ohiturak.

Gurasoei dagokienez, kontuan hartu al dituzue euren etxeko ohiturak?

Alde horretatik, gurasoei batez ere informazioa zabaltzen diegu. Ikasturte hasieran bilera egin ohi dugu eta zer lantzen dugun azaltzen diegu, zein diren gure ohiturak eta zer lortu nahi dugun. Gure nahia etxean gauza bera egitea edo behintzat saiatzea da.

Lau urteotako lanaren inguruan nolako balorazioa egiten duzue?

Balorazioa oso positiboa da, baina gu oso inkomfortak gara eta gehiago nahi dugu. Baina, bestela, oso gustura gaude. Haurrak asko inplikatu dira eta lehen aipatu bezala, oso kontzientziatuta daude.

Ohitura batzuk aldatzea lortu dugu eta adinaren arabera ere gauza desberdinak lortu ditugu. Esaterako, txikiak urtebetetzean goxokiak ez ditugu jaten eta botatzeko ontziak ez ekartzea lortu dugu. Haur bakoitzak bere ontzia du eskolan eta hori erabiltzen dute botatzeko ontzien ordez.

Egia esan, horrelako bitxikeri ugari aipa daitezke. Ez da ekoauditoriaz soilik hitz egin behar, eguneroko aldaketa horiek dira benetako pisua hartzen dutenak. Gurea epe luzerako proiektua da eta pauso hauek ematean datza.

Lan hau guztia aurrera eramateko nolako laguntza jaso duzue CEIDAtik?

Etengabeko harremana daukagu eta proiektua martxan jartzeko unean beraiengana jo genuen. Informazioa, aholkuak eta materiala eskaintzen digute. Europako Eskolen Proiektuaren berri ere bertatik luzatu ziguten eta parte hartzeak gara.



hik hasi elkarrekin topaketak

Maiatzaren 22 eta 23an Donostiako Miramar jauregian "Baloreak irakaskuntzan" izeneko Topaketak izan ziren.

Arlo teorikoan, "mendebaldeko kulturaren" edo modernitatearen krisiaz hitz egin zuen Joxe Azurmendi filosofoak. Euskal Herrian, krisi horretan, biolentziak nola eragiten duen, botereak nola erabiltzen duen eta eskolak nola jokatu beharko lukeen aztertu zuen.

Jarraian, Felix Placer sozio-pedagoak baloreetan oinarritutako heziketaren metodologiaz hitz egin zuen. Neoliberalismoak erakusten duen baloreen galaxian dirua agertzen bada nagusi bezala, eskolan zein baloretan hezi nahi dugun adostu behar da; pertsona kritiko, sortzaile, aurkitzaile eta autoestimua duena sortu nahi badugu.

Arlo praktikoan, Ikastetxe bako-

tzak daraman prozesua azaldu zuen eta Hezkuntza Proiektuan ezarritako baloreen lanketak eskatzen duen koherentzia azpimarratu zen.

Arlo honetan, Eskoriatzako Almen ikastolako esperientziaren aurkezpenen Txaro Iraeta eta Arantxa Etxeberria aritu ziren, Errenteriako Iztieta ikastetxekean Maria Moreno eta Begoña Berrueta, Kanboko Xalbadorrekoan Maite Handizabal, Basauriko Kareaga Goikoa ikastetxe publikokoan Isabel San Juan eta Mercedes Revilla eta Gasteizko Koldo Mitxelena institutuko esperientzian Beatriz Ugarte.


Bertan aurkeztutako lanak HIK HASI 30 zenbakian argitaratuko dira, monografiko formatoa izango duelarik.

Eskerrak eman nahi dizkiegu beren txostenak aurkeztu dituztenei eta, nola ez, topaketetan parte hartu duzuen guztioi.



GUTUNAK

Zuen kezkak,
iritziak,
desadostasunak,
itxaropenak,...
adierazteko
lekua izan nahi
du.



Berriak

Bidal itzazu zure burutapenak irakasle
euskaldunon aldizkarira

EKAINA



Eskola eta herri txikiak bizirik

“Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik” lelopean ospatu zen Zizurkilen XI. Gipuzkoako Eskola Txiki Eguna. Zizurkilgo haur, guraso eta ikasleak biltzeaz gain, beste 24 eskolatakoak ere elkartu ziren ekitaldi ezberdinez betetako eguna ospatzeko.

Aurtengo berrikuntzari nabariena leloaren aldaketa izan da. Orain arte “Eskola txikiak bizirik” baldin bazen leloa, aurtan “herri txikiak bizirik” gehitu zaio. Izan ere, herri txiki hauetako biztanleek badakite eskola oso garrantzitsua dela herrian, eskola desagertzen denean herriko giroa ere desagertu egiten baita.

Jai egun honek behintzat Zizurkil bizi-bizirik dagoela erakusteko balio izan du, eta baita beste 24 herriak ere.

Esperientzia didaktikoak aurkeztuz

Maiatzaren amaieran Lekarotzeko Irakasle Laguntza Zentruak Esperientzia Didaktikoen Aurkezpena antolatu zuen. Bi egunetan Nafarroako ikastetxe ezberdinetako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako esperientzia didaktikoak aurkeztu ziren.

Hasteko, Iturengo eta Mugaireko Haur Hezkuntzako irakasle bik “Xetela dela” bideoa aurkeztu zuten. Hizkuntza arloaren lanketa ahalbidetzeko pentsatuta dagoen bideoa da. Ondoren “Joku kooperatiboak” izeneko lana aurkeztu zuten beste bi irakaslek. Hauek egindako lanean jokoak kooperatiboago eta integratzaileago bihurtzeko jarraitutako metodologia erakutsi zuten.

Hirugarren aurkezpenean Irain eskolakoek “Tele-eskola” proiektua aurkeztu zuten. Proiektu honen helburua ikasleak ikusentzunezko komunikabideetan murgiltzea izan

da, eta baita irudiaren munduari buruzko iritzi kritikoaz jabetzea.

Hiru esperientzia hauek Haur Hezkuntzakoak izan ziren, baina Bigarren Hezkuntzako beste lau ere ezagutzeko aukera izan zen. “Kolore biziak” eta “Calle Mayor” bideo-klipek eta “Giza eskubideei buruzko txostenak” esaterako, Toki-Ona DBHko institutuak aurkeztu zituen. Biak Giza Eskubideen deklarazioa abiapuntutzat harturik landutako lanak izan dira. Lekarotzeko DBHko institutuak “Artoaren inguruko lana” delako proiektua aurkeztu zuen. Interdiziplinaritatea eta gizartearen inplikazioa lortzeko burututako lana izan da. Eta azkenik, Doneztebeko DBHko institutuak “Bideo konferentzia” aurkeztu zuen. Kolonbiako ikasleekin egindako bideo konferentzia bat da berau.


Xirrixa eta Kometa aldizkariak desagertu egin dira

Maiatzaren azken aldean jaso genuen berri tamalgari hau. Sei urteko ibilbidearen ondoren, Xirrixa eta Letrazopak elkarrekin Xirrixa eta Kometa haur aldizkariak argitaratzeari utzi diote. Euskal haur prentsako aldizkari hauek kalitate handikoak ziren, ikuspegi pedagogikoari eta euskararen erabilerari ematen zioten lehentasuna eta lau koloretan argitaratzen ziren. Haurrentzat kalitatezko aldizkariak kaleratzeko helburuarekin ekin zioten proiektu honi, baina oztopo ekonomikoek ez dute helburua luzaroan betetzen lagundu. 70 aldizkari argitaratu dituzte 1992. urtetik hona: 61 Xirrixa eta 9 Kometa. Duela bi urte zenbait erakunderen laguntza jaso zuten, baina azkenean ixteko erabakia hartzea behartu dira.

Dena dela, arazo ekonomikoa soilik ez da izan Xirrixa eta Kometa egoera honetara bultzatu dituen. 3.500 harpide izan arren, kopuru hori handitzea beharrezkoa zen, baina haur prentsa irakurtzeko ohi-tura faltak honetara eragotzi ditu. Xirrixtazaleak eta Letrazopak elkarrekin ez dute irakurle kopurua handitzerik lortu.

Ebaluazioa ebaluatzen

Maiatzaren 12tik 15era bitartean Euskal Herriko eta atzerriko adituak elkartu ziren Nafarroako Ikastolen Elkarteak antolatutako jardunaldietan. Ebaluazioa izan da



aurtengo V. jardunaldi hauen gaia eta antolatzailerak oso pozik gelditu dira. Euren helburua ikasteko, ikertzeko eta esperientziak trukatzeko gune bat sortzea zen eta hori lortu dute.

Jardunaldiak irekiak izan dira eta batzatek beste egunero 100 lagunek hartu dute parte. Ponentziak aurkezten, berriz, 30 aditu izan dira, administrazio, unibertsitate, eskola zein ikastoletan dabilzanak.

Jardunaldien bukaeran egindako inkesta baten arabera hurrengo urterako aniztasunaren tratamendua eta euskararen erabilera proposatu dituzte partehartzaile gehienek.

IKASTAROAK

26. Udako ikastaroak

Udako Euskal Unibertsitateak aurten antolatu dituen ikastaroen artean hauek topa daitezke:

Miarritzen, Lycée Hotelier-en, uztailaren 6tik 11ra

- Idazkera berreziketa edo grafoterapia. PSIKOLOGIA Saila. (7/8)

- Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan. HISTORIA Saila. (6/7)

- Basogintza (Oihangintza) Euskal Herrian. NATUR ZIENTZIAK Saila. (6/11)

- Laztana, aska gaitezen. PSIKOLOGIA Saila. (6/10)

- Hizkuntz komunitateak: elkarren arteko eraginek sortutako aldatuen azterketa. SOZIOLOGIA Saila. (6/10)

- Programazio Neurolinguistikoa. PSIKOLOGIA Saila. (6/10)

Iruñan, Iturrama institutuan, uztailaren 20tik 31ra

Artea eta komunikazioa

- Metodotik esperimentera. Stanislawski metodoa oinarri hartuta, beste teknika garaikide batzuetara hurbiltzea da ikastaro honen helburua. ANTZERKILARITZA Saila. (20/31)

- Irudi-tailerra. Ideiatik produktora. ARTEA Saila. (20/24)

- Bertsolaritza eta eskola. Diziplinariarteko saioa. BERTSOLARITZA eta

PEDAGOGIA Sailak. (20/24)

- Musika-tailerra. Musika-tresnak egin. Musika sortu. MUSIKA Saila. (27/31)

Giza eta gizarte zientziak

- Euskal Herritik kanpo egindako ikerketa antropologikoak. Berrikuntza eta tradizioa. ANTROPOLOGIA Saila. (21/23)

- Goi-urratsak: material desberdinen azterketa. GLOTODIDAKTIKA Saila. (27/31)

- Literatura grekolatindarra eta Euskal Herria. KULTURA KLASIKOAK Saila. (27/31)

- Oratoria euskaraz. ITZULPENGINTZA Saila. (20/24)

- Tradiziozko filologiatik hizkuntzalaritzara kanpo-lana bitarte. HIZKUNTZALARITZA Saila. (27/31)

- Osasunaren Psikologia. Osasun fisikoa bultzatzeko, gaixotasunak prebenitzeko eta errehabilitazio-prozesuan eragiteko aldagai psikologikoak. PSIKOLOGIA Saila. (20/31)

- Noren sexualitatea, gizaki oren sexualitatea. PSIKOLOGIA Saila. (20/24)

- Komunikabideen eraginaren azterketa soziologiko eta politikorako lau aldagai: Ekologia, Ipar Irlanda, Euskal Herriko bakegintza-prozesurantz eta Gizarte-kontrola. SOZIOLOGIA eta ZIENTZIA POLITIKOAK Saila. (20/24)

- Gaur egungo hainbat arazo juridiko. ZUZENBIDE Saila. (27/31)

Izena emateko epea:

Miarritzen maiatzaren 25etik ekainaren 19ra

Iruñan ekainaren 1etik 26ra.

Argibideak:

Baiona:

11 J. Laffitte karrika.

Tel. (07 33) 5 59 25 60 56

Bilbo:

Concha Jenerala 25, 4

Tel: 94 421 71 45 / 94 421 46 79

XXIX. Adierazpen, komunikazio eta psikomotritate ikastaroak

Ekainaren 27tik uztailaren 10era

Antolatzalea: Escola d'Expressió i Psicomotricitat, Bartzelona

Aurtengo ikastaroak lau ardatz dituzte: gorputz espresioa, hizkuntz espresioak, osasunaren prebentzioa eta talde lana. Ikastaro anitz antolatu dira gai hauen inguruan.

Izena emateko epea: ekainaren 27tik ikastaroa hasi arte.

Informazio gehiago:

Escola Municipal d'Expressió de Psicomotricitat

Cisell, 15, 2. planta (esquina paseo de la Zona Franca)

08038 Bartzelona

Tel.: 93 223 24 76 / 93 223 07 57

Fax: 93 223 26 38

SARIAK

CAF-Elhuyar Zientzi Dibulgaziorako V. Sariak

Sari honetan euskaraz idatziriko zientzia eta teknologiaren dibulgaziorako lanak saritzen dira. Bi maila izango dira:

- A maila: idazle berriek idatziriko

zientzia eta teknologiaren dibulgazio-artikuluak.

- B maila: zientzia eta teknologiaren dibulgazio-liburuak.

Lanak 1998ko azaroaren 15a baino lehen bidali beharko dira.

Informazio gehiago:

Elhuyar Kultur Elkartea

Asteasuain 14

20170 Usurbil

Tel.: 943 36 30 40

I. Noaua! Ikerketarako dirulaguntzen banaketa

Usurbilgo herriari buruzko ikerlanak egiteko 1.998rako ikerketarako Dirulaguntzak banatzeko deialdia.

Lanak aurkezteko epea: 1998ko ekainaren 20a

Informazio gehiago:

Noaua! Kultur Elkartea

Kale Nagusia

20170 Usurbil

Tel.: 943 36 03 21

Arantzazuko artzain gazteek diploma eskuratu dute



HIK HASIren 27. zenbakian Arantzazuko Artzain-eskola ezagutzeko parada izan genuen, eta baita bertan ikasten zebiltzan bederatzi artzain gazteak ere. Bada, dagoneko bukatu dute ikasturtea eta baita diploma eskuratu ere. Maiatzaren 21ean jaso zuten sei hilabeteko ikastaro praktikiko-teorikoaren ondoren. Bejondeizuela, eta orain ekin gogotsu lanari!

Gutunak:

SORTZEN iritzi publikoari

1.- Deitutako kontzentrazioa guztiz legala izan arren, 7 egun aurretik abisua Gobernu Zibilean entregatu ondoren kontrako oharrik edo debekurik jaso ez dugulako, poliziak bertantxe debekuaren berri eman digu eta kontzentrazioa deuseztatu.

2.- Nahiz eta SORTZENek, han haur asko zeudela ikusita eta jendeari alde egiteko eskatu, aipatutako jarrera lotsagarria eta prepotentearen aurrean, Gaztelu Enparantzako bidean elkarrekin abiatu gara bildutakoak. Iristerakoan jipoi basatia jaso du taldeak eta batzu ospitaleratu behar izan dira.

Honen aurrean SORTZENek salatu nahi du:

1.- Euskararen kontra Marcotegui, gaur ezabatu dira baleudeko zalantzak, daraman politika.

2.- Marcotegui, Arellano eta UPNren beste garaiko galdu ezineko jarrera autoritarioa.

3.- Errotxapea eta San Frantziskoko gelen bikoizketa; Donibane, Mendebaldea, Ermitagaña auzotarako D lerro berria irekitzea eta Batxilergo Artistikoa euskaraz egin ahal izateko eskaeren aurrean

erantzun moduan jasandako jipoiketaren arteko desoreka izugarria, tokiz kanpoko, ulergaitza.

Eta horrexegatik:

1.- SORTZENek delako Javier Marcotegui Ros, Santiago Arellano Fernandez eta Balen Iriberrri Bengoetxearen berehalako dimisioa esijitzen du.

2.- Parlamentuari eta alderdi politikoei babesa eskatzen diegu adierazpen askatasunaren izenean. Erantzukizun politikoak eskatzeko tenorea da gure ustez.


Eta helburutzat zuten SORTZEN eta Euskal Irakaskuntzaren inguruan mugitzen garenon beldurrez isilaraztea lortu ez dutela adierazteko:

1.- SORTZENek salaketa judiziala jarriko du Ansuategui eta poliziaren jardura errepresiboaren kontra.

2.- Hurrengo ekainaren 12an, ostirala, arratsaldeko 19,00etan, Iruñeko Udaletxeko Plazatik abiatuko den manifestaldira deia egitea. Bertan euskal irakaskuntza eta Nafarroako euskaltzale guztiak euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatzera gonbidatzen ditugu.



ARGITALPENAK



GILTZA IRAKURGAIK

1. eta 2.
zenbakiak
Giltza
argialetxea

Giltza argialetxeak bi irakurgai-liburu kaleratu ditu. 15-20 ipuin biltzen dira bakoitzean eta denak gai jakin batzuk lantzeko prestaturik daude: gorputza, eskola, udazkena, familia, negua, aisialdia, sentimenak, elikagaiak, etxea, udaberria, kalea eta uda. Testugileak Patxi Zubizarreta eta Juan Kruz Igerabide dira, eta marrazkilariak Jokin Mitxelena eta Elena Odriozola. Liburuok Lehen Hezkuntzako lehen ziklokoarentzat daude zuzenduta bereziki.

IRAULTZEN


32. zenbakia
1998ko ekaina

LAB-Irakaskuntzak kaleratu du bere azken aldizkarian irakaskuntza arloko azken gertakarien bilduma egiten da. Besteak beste, gai hauek biltzen dira: Ipar Hegoa fundazioak antolatutako Euskal Eskolaren azken 20 urteak, Seaska, Nafarroako Ikastolen Elkarte eta EAEko Partaide elkartearen arteko mugaz gaineko lankidetzeta hitzarmena, EHUko euskararen normalkuntza, irakasleriaren lan hitzarmen berrien negoziazioa...



FANTASIA BILDUMA

Unitate
didaktikoa
Aizkorri
argialetxea



Fantasia unitate didaktikoa hau Haur Hezkuntzako 3 urteko haurrei zuzendurik dago. Bederatzi unitate desberdin biltzen dira karpeta batean, denak bertan bildu daitezkeelarik. Unitate bakoitzean ipuin bat izateaz gain, irudi eta marrazkiak dira nagusi. Marrazki bakoitzean helburu eta eduki batzuk zehaztuta daude gida moduan lagungarri suerta daitezkeelarik. Bederatzi gaiak urte osoan lantzeko dira, hiruhilabete bakoitzari hiru dagozkiolarik. Egileak Carmen Calvo, Ana Maria Díez Torío, Aurora Estébanez eta Amalia Rodríguez Espinilla dira.

EUSKARA MINTZATUAREN ERRONKAK GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN

EHU-Ibaetako Pedagogia Fakultatea
160 orrialde

Egungo gizartean ahozketasunaren tratamendua funtsezkoa bilakatu da irrati eta telebistak duten eragina kontuan izanda. Horregatik, liburu honetan ahozketasunaren inguruan aditu ezberdinen iritzi eta proposamenak bildu dira. Besteak beste, Pilartxo Etxeberria, Iñaki Gaminde, Imanol Esnaola, Xabier Amuriza, Jon Sarasua, Joxerra Gartzia, Iñaki Martínez de Luna, Kike Amunarriz eta Xabier Urdangarinenak.

1998-89 IKASTURTERAKO LIBURUAK

DBH eta DOBH
Elhuyar



Elhuyarrek datorren ikasturterako sei liburu berri argitaratu ditu. DBH eta DOBH mailetarako dira eta gai desberdinak lantzen dituzte. *Elektroteknia* teknologia arloa lantzeko prestaturik dagoen liburua da. *Geologia eta Biologia* liburu pareta Natur Zientziak eta Osasuna arlorako da, unibertsoetik hasi eta zelularaino dauden kontzeptu desberdinak biltzen dituztelarik.

Beste hiru liburuak material osagarri moduan erabiltzeko eginak dira: *Hegaztien migrazioak*, *Folin marka*, *marraskiloak* eta *euskaldunak uharte galdutan* eta *Euskal Herriko kostaldea*. Jon Larrañaga, Kepa Altonaga eta Mikel Estonba dira egileak hurrenez hurren.



Herri Eskolaren Mugimendu Kooperatiboaren 26. Kongresua

ELKAR LANEAN, hau izan zen orain dela hamabi urte, Hernanin eratu zen Kongresuan izan genuen leloa. Hamabi urte askotxo izan arren, ekin eta ekin dihardugu bide beretik eta ez dugu errez etsiko, zeren iraganean erroturik historia gara baina aldi berean etorkizuna jorratzen dugu. Hori dela eta XXVI. Kongresu horretarako ETENIK GABEKO SOKA aukeratu dugu lema gisa. Lema honek esangura asko sortarazten dizkigu, esanahi desberdineko esaldia bera.

"Bukatu gabeko eginkizuna" dio batek. Eta bai, zeren heziketak ez du muga argirik edo beste era batera esanda, eta orain dela hamabi urteko leloarekin bat eginda, elkarlanean ari gara eskolaren hobekuntzarako eta, ez bakarrik horren alde, ez baikara alferrik izendatzen mugimendu sozio-pedagogikoa gisa eta ez teknopedagogiko hutsa.

"Urrunetik datorren eta buka ezina den marka" dio beste batek, zeren Euskal Eskolaren berrikuntzan Freineten mugimendua hasieratik agertzen baita:

60. hamarkadan, Jose Antonio Sis-

tiagak, "Taller de Expresión Libre Infantil" delakoa sortu zuen Donostian. Celestinen ekarpen teorikoekin. Ikastolen lehen urteetan ere baziren andereño gipuzkoarrak "Ecole Moderne" delakoak antolatutako ikastaroan parte hartu zutenak (1967 urtean Montalban, Frantziako herrian).

Freineten mugimendutik, soka honen beste tirakada bat hizkuntzarentzat izan zen: euskararen erabilera eta bere aldarrikapena. Euskaratutako lehen liburu pedagogikoak Larresorok (Txillardegik) itzultitakoak dira, Freinetenak hain zuzen ere ("Freinet teknikak lilitigietan", "Berezko irakurpidea"). "Ecole Moderne"ko liburutegikoak ere itzuli izan ziren "Ikastola liburutegia" bildumarako hauek.

Gure herrian, Freineten pedagogia, eskolaren berrikuntzari eta kulturaren defentsari lotua dago, bereziki euskarari.

Jarrai dezagun soka honi tiraka, lehengo eta oraingo soka berbera, amaigabekoa.

Sokatira honetan bildu gaitezen Urnietan, udako Kongresuan.

Zer da Herri Eskolaren Mugimendu Kooperatiboa?

Hainbesteko bidea egin duen eta hain konnotazio desberdinak dituen mugimendu pedagogiko bat deskribatzea gauzak motxitzea da inondik ere. Ideia osatuago bat lortuko da, seguruenik, idazki hau irakurritakoan. Hala ere, eta aurrerapen gisa esan daiteke pertsona-talde bat dela -legez elkarte



bezala errekonozituta-, gizarte berri bat lortzeko asmoz, lan kooperatibo, kritiko eta ikertzaile baten bidez, eskola eta hezkuntza-sistema eraldatu nahi dituen. Eskola berri hauxe da herri-eskola deitzen duguna.

MCEP.a (Herri Eskolaren Mugimendu kooperatiboa) ez da talde teknologiko hutsa (talde bera osatzen duten pertsonak berziklatzea, curriculum berriak esperimentatzea, material berriak lantzea, etabar helburutzat duena); harremanezko talde hutsa ere ez da (asmoz taldea osatzen duten kideen artean adiskidetasunak eta giza harremanak lantzea lukeena...). Osera baizik, mugimendu soziopedagogiko bat bezala definitzen da, eta bere tradizioz eta egituraz bere baitan hartzen ditu aurreko bi aukeren ikuspegiak; hala ere, funtsean, soziopedagogikoa da, bada.

* Horren lana ez da pedagogista bakarrik

* Eskola eta bertan egiten den lana, bere sustraitua dagoen lekutik banandu-ezinekotzat jotzen ditu

* Bertako kideek ez dute murrizten beren lana ikasgelara bakarrik

* Bere eskolan egiten duten lana, sozietate justu eta harmoniatsuago bat eraikitzeko etengabeko ahalegin bat bezala kontsideratzen dute.

Nork bere burua mugimendu bezala kalifikatzeak suposatzen du, posible dela nork bere burua barneberritzea eta aldatzea, irekitasuna lantzea eta zabaltzea, guztion artean substratu pedagogiko komun bat egotea bertako kideen artean, baina desberdintasuna egotea ere bai hori praktikan konkretatzeko orduan.

MCEP/HEMK-a beraz, mugimendu soziopedagogiko bat da, osagaiak dituena:

* Ideal bat, "herri-eskola bat", zeina lortzera bideratzen dituen bere ahaleginak.

* Pedagogia propio bat: "Herri-eskolaren pedagogia" edo "Eskola Modernoaren pedagogia", Freinet-en oinarritzeko planteamenduetatik jariatua.

* Espainiako Estatuko lurralde-zatirik handienean inplantaturik egotea.

Antolamendu mailan, eskualde autonomikoa duten taldeen konfederazio bat da. MCEP desberdinak, txandakako izaera duen Idazkaritza



Estatu batek koordinatzen ditu. Taldeak autonomoak izaten dira beren antolamenduan eta funtzionamenduan. Urtean kongresu edo jardunaldi pedagogiko bat egiten da, ekintzan ikerketa eginez, bere planteamenduak eguneratzen dituena, bai alor pedagogikoan eta bai sozialan, eta elkarren arteko topaketa-leku eta esperientziak biltzeko leku izateko balio duena.

Gainera urtean zehar, beren lan-topaketak antolatzen dituzte tailer desberdinek.

Nazioarte mailan, FIMENen (Eskola Modernoaren Mugimenduen Nazioarteko Federazioan) sartua dago, organizaio hori izaki, munduko hainbat herrialdeetan antzeko mugimendu ugari biltzen dituena.

Jardunaldi pedagogikoen helburu orokorrak

Kontuan izanik Herri-Eskolaren Mugimendu Kooperatiboaren (MCEP-aren) antolamendua konfederaziozkoa dela eta bertako presta-jardueran nagusienak txandakakoak direla, aurretik Euskadiko MCEP-ari egokitu zaio "Udako XXVI. Jardunaldi Pedagogikoak" antolatzea.

Kooperazioaren bidez eta esperientziak trukaturik, gure hezkuntza-praktiketan sakondu nahi dugu, eta berauen partehartzaile beste irakasle batzuk egin nahi ditugu, Eskola-eredu Kooperatibo eta Herrikoi/Popular batean aurreratzeko asmoz.

Gure antolamenduak, hots Estatu-mailako Tailerretan eta Lurralde murriztagoko Talde eta Mintegietan

antolaturik egoteak, bide emango digu ikerketa eta prestakuntza lana bi mailatan egiteko; bata konkretuagoa izango da eta eskolako errealitate desberdinak begiztatuko ditu, bestean, errealitate honetatik aurrera joan nahiko du, baina hori beste errealitate batzuekin trukatu eta kontrastatzean, aurrerapen kreatiboa eta kritikoa sortu nahi izango du. Tailer desberdinek, beharrezkoa den autonomi gradu batekin, proposamen berriak lantzen dituzte Ikastaro desberdinen erian eta hauek bide emango dute ikerketa egiteko taldearen beraren interesen arabera, baina berebat emango dute bide, beren esperientziak eta ikerlanak beste talde eta irakasle batzuei, oro har, erakusteko, hauek haien lan-edukinetan interesaturik daudenean.

Hainbat praktika metodologiko lantzen ditugu, berauek berrikusi eta aberasteko; proposamen berriak biltzen ditugu eta zeharkako gaiak planteatu eta mailaz maila tartekatu nahi izaten ditugu hala nola Hezkuntza Sentimentala eta Morala.

Urteoro antolatzen ditugun jardunaldi hauen helburua da, beraz, kolektibo hau osatzen duten irakasleen artean urtean zehar kezkarik edo ikertu-beharrik handiena sortu duten bloke tematikoak edo alorrak lantzea. Beraz, jardunaldi hauek, tailer bakoitzaren topaleku izateaz gainera eta horietako bakoitzak autonomia bakoitzean daukan funtzionamenduz gainera, heziketa iraunkor baten zutabe izango dira.

Eskola Modernoa Espainiako Estatuan

Lehen aroa: Freineten mugimendua 1.939 arte

Oraindik bizi den haietako batek laburtzen digu: Josep Alcobé-k, "La Escuela Moderna en España" izeneko idazlanean.

Jesus Sanz-Freinet. Jesus Sanz Herminio Amendros-"Batec"-Redondo-Tapia-Alcobé. H. Almen-dros-ek "La imprenta en la escuela" itzuli zuen 1.932an eta Revista de Pedagogía-n argitaratu zuen. Inprenta Eskolan delakoaren Kooperatiba Espainiarraren I. Kongresua, Lleidan. "Kolaborazioa". II. Kongresua Huescan. 1.934an Freinet-ek Escola d'Estiu-n hartzen du parte. III. Kongresua 1.936ko uztailean Manresan egitekoa zen, baina ezin izan zen. Heriotza eta Desterrua. Maisi Frantsesek elkartasuna erakutsi zuten Espainiako gerra bitartean.

Bigarren aroa: 1.964-1.975eko urria

-1.964-1.966: Valentzia, Katalunia eta Euskal Herriko maisu-talde batek, harremanak egiten ditu Hego Frantziako Eskola Modernoko maisu batzuekin.

-1.969: Penintsulako I. Topaketa Freinet-en Teknikei buruz. 50 maisu bildu ziren Santanderren, Katalunia, Euskal Herri eta Valentziakoak batez ere, Santander, Asturias eta Madrilekoak gutxiago zirela. Frantziatik etorritako talde bat ere agertu zen, Arrasateko Kooperatibetako guraso batzuk, eta Josep Alcobé erbestetik itzulita. Elise Freinet-ek, bere senarra hil eta gero, karta bat bidali zuen Frantziara bizi zirelagun guztien agur on bat bezala, klandestinitatean egin zen lehenengo topaketa hartara. Urte bereko abenduan Koordinazio-ko I. "stage" a egin zen Valentzian.

-1.970: II. Topaketa Penintsularra Valentzian. 80 maisuk hartu zuten parte, horien artean Frantziako

eta Algeriako ICEM-eko batzuk. Eztabaidatuenak eta argituenak izan ziren puntuak: laizismoa, eskola ez-konfesionala eta umearen izpiritu kritikoa.

-1.971: II. Koordinazioko "Stage" a Bartzelonan. FIMEMeko jardueretan parte hartzea erabaki zen; Laia argitaletxeak Freinet-en obrak gaztelerara eta katalenera itzultzeko proposamena egin zuen; gutxieneko arau batzuk sortu ziren talde bakoitzean hainbeste-ko dispersiorik izan ez zedin.

-1.971: III. Topaketa Penintsularra Oviedon. Topaketa honek, jendea egiten ari zen dibulgazio-lana azaldu zuen, bada klandestinitatean izan arren, hirurehun maisu bildu zituen Katalunia, P. Valentziano, Santander, Madril eta Asturiastik etorrita. Talde frantses eta italiarrek ere hartu zuten parte, eta dezente lagundu zuten posturak argitzen. "Eskolako arau edo irizpideak" izeneko programa bat aurkeztu zen, hainbat ikuspegi ukitzen zituen, hauek izaki metodo naturala, agintekeriak eta diziplinazko irizpideak, umearen espresioa, psikologia eskolan, eskola erakunde bezala, Eskolaurreko, OHoko eta Lanbide Heziketako etapak, doakotasuna eta Hezkuntzako Legea.

-1.972: III. Koordinazioko "stage" a Madrilen. MCE italiarrek lagunekin batera antolatua. Formazio zientifiko baten gaiari ekin zitzaion eta eskola-lana ulertzeko modu berri bat mamitu zen; hipotesi batzuk eraiki ziren umearen formazio intelektualari buruz.

Freinet-en teknikeri buruzko IV. Topaketa Penintsularra, Mollet-en (Bartzelonan). Klandestinitateak ez zuen utzi taldeak instituzionalizatzen, eta erabaki zen, Valentziako taldeak presta zitzala elkarte-estatutu batzuk, dauden taldeei legezko irudi bat emateko balioko luketenak. Mollet-en karta (Eskola Modernoaren Kartaren moldaketa da).

-1.974: Legezkotzat errekonozitu

zen ACIES (Korrespondentzia eta Inprenta Eskolarreko Elkarte).

-1.975: Urtarrilean, topaketa bitartean, Batzar Nagusia egin zen eta bertan ACIES-eko barne-araudia eta lan-metodoa onestu ziren.

Hirugarren aroa: Kongresuak

-1.975eko Uztaila: Eskola Modernoaren II. Kongresua Bartzelonan, honako ponentziak garatzen dira bertan: Ingurunearen ikerketa eta dokumentazioa, Egunkari eskolarra, OHoko 6.mailako matematika-ikas-turte bateko Esperientzia, Psikomotritzitatea, Osasun Eskolarra, Historiaren Irakaskuntza, Irakaskuntza Programatua eta Testu Librea 1. eta 2. Etapan. Tailerretan honako gaiok eztabaidatu ziren: Ikasleen taldedura eta errekonozizio-saialdia eskola estatutuan, Korrespondentzia eskolarra, Eskola-porrota, Kalkulu bizia eta Inpresio-Teknikak. Ondorioekin dossier bat argitaratzea erabaki zen.

-1.976: MCEPren III. Kongresua Salamancan. Salamancako deklarazioa; argi eta garbi azaldu zen bertan, ACIESen estatutuen bidez, ordurarte modu labur eta nahaskorrean adierazi izan zen linea ideologikoa (ACIES zen orduan, lehen MCEP zena). Herri-Hezkuntzako Proiektuan lan egiten hasi ziren.

-1.977: Eskola Modernoaren IV. Kongresua Granadan. Herri-Hezkuntzako Proiektuaren Estudioa. Legezko izena hartu zen: MCEP (Herri-Eskolaren Mugimendu Kooperatiboa).

-1.978: Eskola Modernoaren V. Kongresua Santiagon. "Colaboración" aldizkariaren Erredakzio-Kontseilua. Mugimendu Pedagogiko eta Sindikal desberdinekiko Harremanak.

Kongresuek jarraitu egin dute; azkenekoa 1.997an egin zen, Malagan.

Informazioa: Langile Ikastola (Hernani)
Tnoa.: 943 55 54 23

Europako irakasleen ordutegiak eta ordainsariak

Frantziako Hezkuntza Ministeritzak Europar Batasuneko 4,5 milioi irakasleren lanordutegiak eta ordainsariak konparatzeko ikerketa bat burutu du. Eta atera duten ondorioak nagusienaz zera izan da: frantzesak ez direla ez pribilegiatuak eta ezta kaltetuak ere.

Egindako ikerketaren arabera, Europan bi estatus mota bereiz daitezke Hezkuntza Sistemari dagokionez:

1- Alde batetik, lan kontratuan irakaskuntza denbora soilik dutenak finkaturik. Estatu gehienak egoera honetan aurkitzen dira: Frantzia, Alemania, Irlanda, Luxenburgo...)

2- Bestetik, lan kontratuan irakaskuntza denboraz gain beste jardueretarako (klaseen prestakuntza, azterketa eta lanen zuzenketa, gurasoekiko bilerak...) denbora ere arautua dutenak. Estatu gutxi batzuk dira egoera honetan daudenak (Grezia, Espainia, Italia, Holanda). Ikerketa honen arabera, aipatu jarduera hauetarako araututako denbora %33-40 ingurukoa da Lehen Hezkuntzan eta %40-50 ingurukoa

Bigarren Hezkuntzan. Britainia Handian, berriz, irakaskuntza eta beste jardueretarako orduen banaketa zuzendariaren esku dago.

Frantzia lehenengo taldeko estatuaren artean dago, hots, irakaskuntza orduak soilik hartzen dira kontuan. Hala ere, Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza ordu bakoitzeko beste lanetarako beste ordu bat behar dela estimatu dute. Beraz, astean 36 ordu inguruko lana egin behar dute, nahiz eta 18 soilik egon arauturik.

Lehen Hezkuntzako orduak

Lehen Hezkuntzari dagokionez, Frantzia da irakaskuntza ordu gehien eskaintzen duen estatuak: 910 ordu urteko. Grezian 656 ordu dira, Danimarkan 750 eta Italian 748.

Lan ordutegi osoa kontuan hartzen bada, ordu gehien lan egiten dituzten estatuak hauek lirateke: Danimarka (1680 ordu), Holanda (1520) eta Espainia (1537). Azken bi hauetan asteko 37-38 ordu izango lirateke.

Ordainsariei dagokienez, lanean hasi berriak diren irakasleen eta 15 urte edo gehiago daramatenen arteko ordainsarien arteko desberdintasuna leku batzutan handiagoa da. Frantzian, esaterako, %87ko diferentzia dago lehenengo eta bigarregoen

artean. Austrian, berriz, %100koa. Hasi berriak diren artean, Alemaniakoak dira gehien irabazten dutenak; 134.000 libera (3.350.000 pta).

Bigarren Hezkuntza

Bigarren Hezkuntzan irakaskuntza orduak jeisten diren bitartean, ordainsariak igo egiten dira. Honen arrazoia irakasleek prestaketarako eta zuzenketarako behar duten ordu kopuru handian bilatu behar da. Orokorrean, beraz, Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren artean irakaskuntza orduen jeitsiera atzematen da, baina salbuespenak badaude. Danimarka, Holanda eta Britainia Handia, esaterako.

Danimarkan, adibidez, irakasleek 1680 ordu egin behar dute lan, eta hauetatik 750 dira irakaskuntza orduak. Frantzian, ordea, azken hauek 630 dira eta Italian 612.

Alemania, Grezia, Italia eta Portugalen irakasleriaren adina kontuan hartzen dute ordu kopuruen banaketa egiterakoan. Hau da, adina handitu ahala lanordutegi gutxitu egiten dira. Horrela, Portugalen jubilatzearen dagoen irakasle batek hasieran baino %40 ordu gutxiago egiten du lan.

Ordainsariei dagokienez, ia estatu gehienetan Bigarren Hezkuntzako irakasleei Lehen Hezkuntzakoei

baino gehiago ordaintzen zaie. Salbuespenak Grezia, Portugal eta Britainia Handia dira, hauetan berdin ordaintzen baitzaie.

Formakuntza

Europako irakasleria kopurua neurtzen hasita, Europar Batasuneko populazio aktiboaren %2,6a osatzen duela esan behar da. Irakasle izateko titulua lortzeko egin behar diren ikasketak antzekoak dira estatu guztietan. Selektibitatea edota lekuan lekuko frogak gainditu ondoren, irakasle eskoletan ikasten dute.

Frantzian ordea ikasketak konplexuagoak edo luzeagoak irakaskuntzarako karrerak prestatzeko institutuak daude, baina hauetan ikasi ahal izateko, lehenengo hiru urteko ikasketa unibertsitarioak egin behar dira.

Bestalde, Alemania da irakasle itzeko ikasketa mailarik altuena eskatzen duen estatua. Baina era berean, bera da ordainsaririk eta estatusik hoberenak eskaintzen dituen ere.

Gainontzeko estatu gehienetan ikasketak egin ondoren lortzen duten titulazioa diplomatura mailako da (Britania Handian, Danimarkan eta Holandan ezik).

Dena dela, irakasle titulua lortzearekin ez da bukatzen ikasteko beharra. Denok dakigu irakasle lanak etengabeko prestakuntza eta berri-tzea eskatzen duela. Hori dela eta, estatu batzutan derrigorrezko etengabeko formakuntza ezarri dute:


- Finlandian eta Suedian hiru eta bost egun arteko prestakuntza eskatzen dute urteko.

- Grezian bost edo sei urtero ikastaroak egitea eskatzen da.


- Eskozian 50 ordu eskatzen zaie ikasturteko eta bost egun lan egutegitik at.

Hala ere, estatu gehienetan prestakuntza ikastaroak borondatezkoak dira. Normalean lanorduen barruan baina irakaskuntza orduetatik kanpo izan ohi dira.

LEHEN HEZKUNTZA




BIGARREN HEZKUNTZA



(1) Prestakuntzarako orduak zehaztu gabe daude

Argentinako irakasleak urtebetez barau greban

In-fan-cia aldizkariak Hego Ameriketako Haur Eskolak ikusteko bidaia prestatu zuen maiatzaren hasieran. Argentina, Uruguay eta Brasil bisitatu dituzte. Hik Hasiko partaide eta Oiartzungo Haur Eskolako irakaslea den Izaskun Madariagak bertara joateko aukera izan du Oiartzungo Udalaren laguntzaz. Bidaiaren itzulerarekin batera ezagutu dituen lekuak, eskolak, giroa, arazoak eta esperientziak kontatzera dator orain.



Buenos Aires hirian, Mayo plazarekin batera, Kongresuko plazan ezarri den Irakasleen Karparekin borrokagune berria sortu da. Iazko apirilaren 12az geroztik Argentina osoko irakasleak etengabeko baraualdi txandakatu daude.

Zer gertatu da? Zer eskatzen dute? Nork koordinatzen ditu? Beraiekin egon berriak gara eta hara hemen, CTERAko¹ partaide den Roberto Diazek kontatu diguna.

Istiluaren hasiera 1990. urtean kokatu behar da. Gobernuaren aldaketarekin batera politika osoa aldatzen hasten da, maila guztietan neurriak hartuz.

Hezkuntza arloan birmoldaketa garrantzitsua ematen da, hau da, nazioko eskola guztiak, Haur Hezkuntzatik hasi eta Bigarren Hezkuntzara arte, probintziara transferitzen dituzte, baina dirulaguntzarik gabe. Hezkuntza legea hustutzen hasten da

eta gero eta haustura eta neurri zorrotzagoak jasaten dituzte. Probintzia batetik besterako aldeak gero eta handiagoak dira bai eskolatzeko mailan eta baita soldata eta lan baldintzen mailan ere. Adibidez, probintzien arabera irakasle batek 200, 300 edota 500\$ irabazi dezake.

1993. urtean ateratzen den Lege Federalak arazoa konpondu ez ezik areagotu egin du eta hezkuntza alorreko lehen borroka zorrotzak piztu dira.

¹ Confederación de Trabajadores de la Educación de la República Argentina

Borroka arrazoiak funtsean berdinak dira eta borroka horiek indartu eta batera eramateko beharra ikusten da. Honela sortzen da, bada, Karpa Txuriko Barau Ekimena.

Ekimena CTERAko Idazkari Nagusien osoko bilkura batean sortzen da 1997ko martxoan. Helburu nagusia hezkuntzako finantzaketa legea eskatzea da, kalitatezko hezkuntza, doakoa eta librea bermatuko duen legea. Baina honekin batera, Hezkuntzako Lege Federalaren kritika sakona egitea.

1997ko apirilaren 12an bada, karpa eraikitzen da. Baraualdiari hasiera ematen zaio CTERAko erakunde gehienetako irakasleen ordezkariekin. Ekintzaren muga, luze jota 30 egunetarako planteatzen bada ere, gaur egun baraualdiarekin jarraitzen dute. Urte sasoiaren arabera, txandak 20 edo 10 egunekoak izaten dira.

Zer gertatu da urtebeteko borroka honetan? Hasteko, Argentina osoko hezkuntza egoera ezagutzera iritsi dira eta honekin batera lurralde osora eraman dute hezkuntzaren inguruko eztabaida sakona. Gaur egun finantza-

keta legearen diseinu adostua aldarrikatzeko gai dira, bere horretan irmoki mantentzen direlarik gobernutik egin asmo dituzten mugimendu ezkutatzailerei mozorroa kenduz. Ez dira alferrik galdu elkarren arteko eztabaida iraunkorrak, hainbeste aktore bizien ekarpenak eta etengabeko elkarjartzeak taldearekiko partaidetza eta kidetasuna lortzeko.

Bestalde, "Karpa", "Karpa Zuria" edota "Irakasleen Karpa" izenez ezaguna dena, "Duintasunaren Karpa" izena hartzera iritsi da. Ez da kasualitatez edo besterik gabe aldatu, gainera. Izan ere, irakasle alorreko borroka izaten hasi zena, gaur egun Argentina osoko borroka asko biltzen dituen ekimena bilakatu da. Edozein gatazka sindikalen, inpunitatea beraren, hilketen, Maiatza plazako ama-amonen, jubilatuen, gatilo erraza deritzanaren eta abar luze baten durundi edo oihartzuna izatera iritsi da. 1997ko urriaren 26ko hauteskundeetan Menemek jasandako porrotarekin zerikusia dute la diote borrokalariek. Bistan da ez dela borroka isildua. Komunikabideen

babesa badute herritar asko eta askoren laguntzarekin batera. Horren lekuko dira gai ezberdinen aurrean lortzen dituzten mobilizazio handiak.

Finantzaketa legearen eskakizunak aldarrikapen sektoriala baino gehiago dela erakutsi du. Planteamendu osoak, hau da, diru fondoak lortzeko proposamenak eta berauen banaketa eta kontrol moduak, muinean ukitzen du gaur egun dagoen eredu neoliberalak. Karpa Zurian, "beste Argentina" dago Parlamentu berriari eskaerak egiten. Horretan daude maisu-maistra borrokalariek eta horretan jarraituko dute lege berria lortu arte.

Beraiekin harremanetan jarri nahi baduzue, hona hemen helbidea:

CTERA

Avda. Rivadavia 3619/23 C.P. (1204)
Capital Federal - Buenos Aires - ARGENTINA

Tel.: 865-0347/0351/0360

Fax.: 865-3588

e-mail: mmaffei ^a ctera.cci.org.ar



Arte Hezkuntzarako baliabideak Interneten

Imanol Agirre Arriaga

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakaslea
Psikologia eta Pedagogia Departamentua



Oraingo honetan gaur egungo sare ospetsuan (internetean, alegia) Arte Hezkuntzarako aurki daitezkeen zenbait baliabideren berri emango dizuet. Gehienbat "web" deituriko internet atal horri dagozkie, berau baita esperientzia handirik gabeko "marinelentzat" sarean zehar nabigatzeko parajerik samurrena. Hortaz, ordenadoreaz gain, "Netscape" edo "Explorer" bezalako programaren bat beharko duzue eskainitako informazioa eskuratu ahal izateko.

Hemen aurkezten dena abiapuntu bat besterik ez da, gero norberak nahi duen bidea har dezan. Horregatik, alde batera

utzi ditugu hezkuntzaz orokorrean informazioa biltzen duten helbideak edota hainbat unibertsitate, ikastetxe eta arte instituzioek dituzten orrialdeak. Eskainitako hau nahikoa izango da nabigatzen hasteko.

Kontuan hartu behar da, hala ere, sarean plazaratutako informazioa egunetik egunera aldatu egiten dela. Gauza asko desagertu egiten dira, eta beste berri asko sortzen dira. Beste batzuk, berriz, beraien edukiak eta helbideak aldatzen dituzte. Ezinezkoa da guztien jarraipena egitea eta agian hemen emandako informazioa ez da guztiz zuzena izango kasu batzuetan. Hortaz, emandako helbideak irekitzea zaila edo ezinezkoa egiten bazaizue, hona hemen aholku bat: saia zaitzte berririkitzen helbidea laburtuz. Adibidez <http://www.kodak.com/aboutKodak/bu/ci/education/lessonPlans/pinholeCamera/>

helbidea irekitzen saiatu ondoren zerbitzariak arbuia egiten badu, froga ezazue azken atalaz kenduz: <http://www.kodak.com/aboutKodak/bu/ci/education/lessonPlans>. Horrela ere ezinezkoa balitz, jarraitu azken atalak kentzen zerbait lortu arte: <http://www.kodak.com/aboutKodak/bu/ci/education> eta abar.

Erabat galduta aurkitzen bazarete "Yahoo" (<http://www.yahoo.com>) edo "Altavista" (<http://www.altavista.com>) bezalako bilatzaileen bitartez aritzeko aurkera duzue. Sarritan berau izaten da helbide zehatz bat aurkitzeko edo orrialde ezezagunen berri jasotzeko biderik egokiena.

Arte hezkuntzako baliabide orokorrak

National Art Education Association
<http://www.naea-restore.org/>



Oso ospetsua den elkarte honen orrialde ofiziala da. Arte Hezkuntzari buruz denarik aurki daiteke.

Eric Clearinghouse on Elementary and Early Childhood Education (EECE)

<http://ericps.ed.uiuc.edu/ericee.html>

ERIC/EECEk ERIC datu bilduma orokorrean ezartzen du Haur Hezkuntzari buruzko informazioa. Reggio Emiliako eskoletako proiektuari (L. Malaguzzirena, alegia) atal berezi eta zabala eskaintzen dio.

Cedarnet

<http://www.cedarnet.org/emig/advocacy.html>

Oso interesgarria da Arte eta Arte Hezkuntzari buruzko helbide elektronikoen zerrendak ugaltzeko.

Americans for the Arts

<http://www.artsuasa.org/>

Azaletik ezagutzen dut nik. Artea eta hezkuntzari buruzko politikari dagoz-kion edukiak aurki daitezke hemen. Baliabideei buruzko informazioa ere eskuragai jartzen digu.

National Pta Arts in Education Resource Library

<http://www.pta.org/issues/artslibr.htm>

Helbide honetan artearen hobekuntza neurtzeko frogen eta EEBBtan erabiltzen diren "standard"en informazioa biltzen da.

"Icotec-Internet and Educational Resource Directory" eta "Educational Products and Service"

<http://www.icotec.com/Disted.html>

Irakaskuntzarako baliabidez osaturiko lotura anitz aurki daitezke helbide honetan. Bestek beste honako hauek:

- "Artea" eta "espazioa" gaitzat dueneta bat.

- "Canada's SchoolNet" eta "Global School Net". Hauen bitartez websitez prestatuko ikasgeletara ailegatzeko pasarteak lor daitezke.

- Urruneko irakaskuntzari buruzko helbideen zerrenda bat.

- Web orriak sortzeko argibideak eta ikonoak.

Gelarako baliabideak eta ikasgaiak

Artsednet. The Getty Center for Education in the Arts

<http://www.artsednet.getty.edu/>

Baliabidez betetako orrialdeak eskaintzen ditu. Getty Institution da gaur egun Ipar Ameriketara hain ezaguna den DBAE (Discipline Basek Art Education) programa aurrera daramana. Arte Hezkuntzari dagokionez, denarik aurki daiteke. Elkarriketarako eta Arte Hezkuntzari buruzko berrien zabalkuntzarako "Artsednet" topagunean eskaintzen du. Bezero izateko ez da ezer ordaindu behar eta bertan aurkituko dituzue argibide gehiago.

Artsedge

<http://artsedge.kennedy-center.org/>

"John F. Kennedy Center for the Performing Arts" eta "National Endowment for the Arts"en artean sortutako proiektu bat da orrialde hauetan eskaintzen dena. Beste orrialdeekin lotura ugari eskaintzen du. Horrez gain, Arte Hezkuntzako curriculumari buruzko ideiak eta arlo honetako hezitzaileekin egindako elkarriketak topa daitezke.

Artlex

<http://www.aristotle.com/sskysto->

<http://www.artlex.com/>

Edozein museo elektronikoa baino hobe da web orri hau. Oso lagungarria da artelan zehatzak sarean duten kokapena aurkitzeko. Izatez, arte hitzen hiztegia da. Kontzeptu askotatik loturak sortzen dira beste orrialdeekin. Oso interesgarria da ikasleekin aritzeko.

Ikasleen mugimenduak kontrolatu nahi badituzue, "go-between" erabil dezakezue. Honen bitartez eskola, mugimendu, teknika edo estilo zehatzetara mugatu ahal izango duzue. Adibidez, "Renaissance" hitza aukeratzeko gero, bere definizioa eta beste 20 web-ekiko lotura eskaintzen du, ingeleraz, noski. Aukera anitz eskaintzen ditu. Saia zaitzete edozein hitzekin (mask, Chillida eta abar) eta ea zer gertatzen den.

North Texas Institute for Educators on the Visual Arts (University of North Texas)

<http://www.art.unt.edu/ntieva/>

Institutu honen orrialdean Asiako arte eta kulturari buruzko materiala aurki daiteke. Begira ezazue "Art Curriculum" atalean ere.

Craig Roland (Floridako Unibertsitatea)

<http://grove.ufl.edu/~rolandc/homepage.html>

Floridako unibertsitateko irakasle honek oso orrialde interesgarria dauka. Bestek beste, Forum aldizkari elektronikoa eskaintzen du.

Brainstorms. Minnesota Museum of American Art (MMAA)

<http://www.mtn.org/MMAA/>

Museo honen eskaintza curricularra biltzen du. Ikasgaiak eskaintzeaz gain, badauka irakasleentzat berezia den beste atal bat ere.

The Incredible Art Department

<http://artnet.nde.state.ne.us/iad/>

Izenak dioen bezala, oso interesgarria eta erabilgarria da helbide hau. Arte Hezkuntzari buruzko beste helbideen berriak jasotzeko aukera ematez gain, ikasgaiak eta informazio anitz aurki daitezke.

The Art Teacher Connection

<http://www.primenet.com/~arted>

Irudi elektronikoa egiten nola irakatsi azaltzen du eta ikasle gazteen lanen adibideak ere biltzen ditu.

Freeyellow
<http://www.freeyellow.com/members/littlered/>

Duela gutxi eraikitako "website" berria da. Interes erdigunetan oinarritutako irakaskuntzaz edo harreman interdiziplinarioez interesaturik baldin bazaudete egokia da. Gai zehatzei buruzko baliabideen bibliografia eta beste zenbait material eskura daiteke. Gaia hilero aldatzen omen da.

Antzerkia eta Arte Hezkuntza
<http://www.ETASSOC.ORG>
<http://www.AAAE.ORG>
Antzerkia Arte Hezkuntzan erabiltzeko ideiak eskaintzen dituzte bi helbide hauek.

Kubismoaren historiari buruz
<http://www.kn.pacbell.com/wired/art/styles.cubist.html>
<http://www.tamu.edu/mocl/picasso/art1.html>
http://www.tamu.edu/mocl/picasso/what_cub.html
http://www.art.unt.edu/ntieva/news/vol_6/issue2/95sprp05.htm
<http://watt.emf.net/wm/paint/auth/cezanne/style.html>
<http://www.artsednet.getty.edu/ArtEdNet/Resources/Sampler/ea2.html>

ICA (Institute of Contemporary Art)
<http://www.illumi.co.uk/ica>
Londresen dagoen instituzio honen orrialdea hiru ataletan banaturik dago:
- Gertakizunak (beraien ekimenera egitaraua)
- Baliabideak (beti arte garaikideari buruz)
- Webpace (www sarean egindako azken lanei buruz)

Arte eta zientziaren arteko harremanei buruzko galderei erantzuteko atal berri bat ere badute, eta baita arteari buruzko solasaldi elektronikorako (chat) kanal bat ere.

Institutu honen hezkuntza sailak "Interaction" du izena eta honen gora-beherak <http://www.illumina.co.uk/ica/INTERACTION> orrialdean aurki daitezke. Besteak beste, garaikidea den "arte kontzeptuala" nola begiratu erakusteko "ideas" izeneko proposamenak lutzatzen du Lehen Hezkuntza bukatzen ari diren haurrentzat.

Kodak
<http://www.kodak.com/custo->

<mers/education/lessonPlans/lessonPlans.shtml>

Helbide honek argazkigintzari buruzko ikasgaiak eskaintzen ditu.

<http://www.kodak.com/aboutKodak/bu/ci/education/lessonPlans/pinholeCamera/>. Honek, berriz, "pin hole" (kutxa zulatu bat duten) argazki kamara nola egin eta erabili azaltzen du.

Crayola
http://www.crayola.com/art_education

Crayola eskolarako materialen etxe komertzialak jarritako orrialde elektronikoa da. Edonon aurki daitezke beraien produktuak erosteko deigarriak, baina beste baliabideak ere bai:

- Arte Hezkuntzarako baliabidea eskaintzen dituzten "link"en zerrenda bat.
- Ikasgaietarako ideien orrialdeak.

Animation World Network
<http://www.awn.com>

Animazio munduan hasteko helbiderik hoberena da. On line aldizkari baten formatoa dauka: artikulua eta bideo-klipak eskaintzen ditu.

American Society for Testing and Materials (ASTM)

<http://www.astm.org/pub.html>
Elkarte honek eskoletan erabilitako materialen ziurtasuna neurtzeko "standarrak" edo ereduak eskaintzen ditu. Ipar Ameriketako materialak izan ohi dira, eta sarritan ez ditugu ezagutzen. Hala ere, informazio baliagarria izan liteke.

Ikasgelarako Irudiak
<http://www.utsystem.edu/OGC/IntellectualProperty/imagguid.htm>

Irudien erabilpenaren eskubide intelektualei buruzko gida da.

Art Images for College
<http://www.mcad.edu/AICT/index.html>

Joconde
<http://www.culture.fr/culture/spic.html>

Frantziako ondare kulturalerako informazio zerbitzua da. Frantziako museotako 120.000 dokumentu -margogintza eta eskulangintza- eskaintzen ditu.

Save Outdoor Sculpture
<http://www.nic.org/sos/sos.html>

Teacher Net. Fine Art Museum of San Francisco

<http://www.thinker.org/>
60.000 irudiz gorako bilduma eskaintzen da orrialde honetan. Bilduma osoa 120.000 iruditakoa da. Hezkuntza atalean Afrika eta Ameriketako arteari buruzko batasun didaktikoren bat aurki daiteke.

Web Museum
<http://sunsite.unc.edu/wm/>
<http://www.oir.ucf.edu/wm/paint/auth>

The Louvre izena badu ere, ez du zerikusirik Parisko museo famatuarekin. Sarean aurki daitezkeen arte irudi bildumarik garrantzitsuenetarikoa eta erabilgarrienetarikoa da. Bide askotatik ailegatu daiteke bertara.

Womens Studies
ftp://ftp.cascade.net/pub/Womens_Studies/Art/

FTP da artxiboak lortzeko biderik samurrena. Orrialde honetan emakumeen artelanen irudiak ikus daitezke.

Emakumea eta Arteari buruzko Irudiak

Bi hauetan eskaintzen da informazio hau:

1.- Portraits of Women (Emakumeen erretratuak)

<http://www.magma.ca/~alexki/klimgt/women.htm>

2.- Diotoma: Women and gender in the Ancient World (Emakumea eta generoa antzinean)

<http://www.uky.edu/artsscience/classics/gender.html>

Ami (Archives and Museum Informatics)

<http://www.archimuse.com>
Irudiaz gain eskaintzen ditu beste antzeko helbideei buruzko informazioa.

Haurren lanen erakusketa eta elkartrukeak

The Children's Art Gallery
<http://redfrog.norconnect.no/~cag/>

Proiektu honen dohaineko lekua eskaintzen du munduko edozein lekutako 3 eta 17 urte bitarteko haurren marrazkiak bertan plazaratzeko. Beraz, erakusketa elektronikoa hau ikustez gain, marrazkiak ere bidali daitezke. Adinez, herriz edo beste irizpideren



batez baliatuz ikus daiteke bilduma hau.

Lanak bidali ahal izateko "gif" edota "jpeg" formatoetan egin behar dira. Hala ere, bidali aurretik argibideak eskatzea komeni da aukera ugari eskaintzen dituztelako. Izan ere, beraien asmoen artean hauek daude:

- Internet sarean "edozein hiritarrentzat" gune irekia eskaintzea. Beraz, haurren lanetarako erakustoki bat zabaltzea.

- Kultura eta herri ezberdinetako haurrak, gurasoak, irakasleak edo ikastetxeak harremanetan jartzea.

- Proiektu edo ekimen desberdinen erkaketarako edo elkarlanerako topagune bat eskaintzea.

The kid's Portrait Gallery

http://www.arts.ufl.edu/art/por-trait/tpkg_home.html

Erakusketa areto elektroniko honek 4-12 urte bitarteko haurrek egindako erretratuak aurkezten ditu. Helbidea jaso nuenean, Gainesville-ko (Florida) haurren lanak besterik ez ziren azaltzen, baina beste lurraldeetako haurren erretratuak aurkezteko asmoa ere bazuten.

Erretratuak eskaintzeaz gain, bisitariak ere aurkituko ditugu: Arte Hezkuntzako ikasgaiak, erakusketarako iradokizunak eta antzeko erakusketa areto elektronikoetarako loturak.

Art Studio Website (University Park Elementary)

<http://www.highlandpark.k12.tx.us/HTML/Schools/Elementary/UP/Art.html>

Honek lehen eta laugarren maila bitarteko haurren lanen erakustokia du eta "Art Adventures" izeneko loturak ere bai.

Haurrak eta Museoa

National Museum of American Art
<http://www.nmaa.si.edu/kscope/childrenlesserg.html>

Metropolitan Museum of Art
<http://www.metmuseum.org/html/file/education/edu.html>

New Yorkeko museo famatu honen orrialdeak haurrentzako baliabide didaktikoak eskaintzeaz gain, joko batzuk ere baditu.

National Museum of American Art (Smithsonian)

<http://www.nmaa.si.edu>
Washington-eko Smithsonian instituzio ospetsuak ere baditu hezkuntzarako oso probetxugarriak diren baliabideak.

Orlando Museum of Art

<http://www.ucf.edu/~oma>
Txinatar inperioaren hilobiei buruz antolatutako erakusketa zehar bidaia birtual bat eskaintzen zuen museo honek bere orri elektronikoaren bitartez. Agian orain aldatu egingo zuten, baina aipatutako honetan erakusgaiak ezezik, hauei buruzko ikasgaiak prestatzeko informazioa eta elkarriketarako talde baten antolakuntza ere eskaintzen zuten. Hortaz, ondorengo erakusketetan ere antzeko ekimenak antolatuak izango dituzte. Merez du noizean behin helbide honi bisitatxo bat egitea.

Web orrialdeak sortzeko
<http://www.kn.pacbell.com/wired/filamentality/>

Hezkuntzarako web orriak eraikitze-

ko pausoz pauso gidatzen duen orrialde elkarregea da.

Gif Animation on the Web

<http://member.aol.com/royalef/gifanim.htm/>

Gif da sarean normalean erabiltzen den irudien formatoa. Irudi hauek, gainera, sarean lortu daitekeen "Gif Builder" aplikazioaren bitartez mugari egin daitezke. Helbide honetan honen guztiaren berri jaso dezakezue.

Helbide bitxiak

Arkitektura Irakaskuntzan

<http://why.org/aie/aie.html>

Arkitekturaren erabilpena irakaskuntzan lagungarri delakoan sortu zuten orrialde hau.

Koadrilak

<http://gangid.ucdavis.edu/dept/gangID/default1.html>

Hirietako koadrilen gaia jorratzen baduzue zuen gelatan, hona hemen egokia suertatuko zaizuen helbidea. Ipar Ameriketako hirietako koadrilak agertzen dira, baina haien sinboloz, janzkeraz eta antzeko zehaztasunez aritzen denez (batzuetan hemen bertan erabiltzen diren berberak), helbide honetan eskaintzen den informazioa eta ikuspuntuak baliagarriak izan daitezke.

Tipografia sortzaile bat asmatzeko proiektua

<http://schools.sys.uea.ac.uk/schoolnet/bradfield/oldart/chronic3.htm>

<http://schools.sys.uea.ac.uk/deepspace/jn/>

Paperezko hegazkinak

http://pchelp.inc.net/paper_ac.htm

Fraktalak

<http://reality.sgi.com/employees/rck/hydra/archive/index.html>

Mandelbrot-en fraktaletan oinarritutako irudiei buruzko helbidea da honako hau. Konexioa motel xamarra izan daiteke, beraz, denbora lasai hartzeko prest egon behar duzue.



DBH-ko Bigarren Zikloa

Euskara eta Literatura 3 eta 4
 Matematika 3 eta 4
 Gizarte Zientziak 3 eta 4
 Natur Zientziak 3 eta 4
 Lengua y Literatura 3

Ikaslearen liburua

Irakaslearen gidaliburua

Euskal Literaturaren antologia



URTXINTXA



3 urte

Haur Hezkuntzarako material berria

ikaslearen karpeta

1. hiruhilabetea

"Urtxintxa" proiektua (3 urte)



Ikaslearen karpeta:

Ipuinak
 Lan-koadernoak

Irakaslearen karpeta:

Ipuinak laminatan
 Hormirudiak
 Hiztegi mutua
 Kaseta
 Alfabetoa
 Zenbakiak
 Azalpen testuak

Hiruhilabete bakoitzerako